

ARGIA

*“Kanpoko taldeak
ondo ordaintzen dira
hemen, bertakoak
prekarioago gabiltza”*

Joseba Tapia

42-45. orriak

**“Putentzat eta
eroentzat ez da
demokraziarik izan”**

14 | ANDREA MOMOITIO

**LOMLOEk Hegoaldeko
eskoletara ekarriko
dituen aldaketak**

24 | HEZKUNTZA

**Euskara, aniztasuna,
hurbiltasuna eta
topagunea**

30 | ZIBURUKO AZOKA



10:00 - 11:00

11:00 - 14:00

Harrera ekitaldia

Batukada herrian barrena

Herriko produktuen azoka

Herri kirolak

Puzgarriak

Trebezia zirkuitua

Zirko tailerra

Eskalada txokoa

Sormen tailerrak

"Elkar ezagutuz" jolasa

Bazkaria

Andoni Ollokiegiren kontzertua

Ikasleen antzerkia: "M. Dolores Agirre"

"Baserriko porrusalda" clown emanaldia

Puzgarriak

Argizulo Dup Station taldearen kontzertua

Errezil Sagarraren Ibilbidea

Autobusa joan-etorrian

14:30 - 15:30

15:30 - 17:00

17:00 - 17:30

17:30 - 18:30

15:00 - 19:00

18:30 - 20:00

Egun osoan

ESKOLA TXIKIEN JAIA ERREZIL

2022ko ekainaren 12a

ANTOLATZAILAK

BABESLEAK



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | JUNE FERNANDEZ
- 21 | ITZIAR MORENO
- 21 | LAURA MINTEGI
- 22 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: ROGE HINOJOSA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


12 | **GOSEAREN GEOPOLITIKA**

"Txioari debekatzen zaio nekazaritza sustatzea, populazioaren gehiengoa osatzen duten nekazariak debekatzen zaie beren lanetik bizitzea, herrialde eta jende horiek inportazioen morroi bihurtzen dira. Nazioarte mailan elikagaiak garestitzen baldin badira, hondamendia da. Horretan gaude". Pello Zubiriak aste honetan ondutako Net Hurbilek azaltzen du zein modutan zabaltzen ari den gosea eta zein diren aurre egiteko estrategia eraginkorrak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | ANDREA MOMOITIO "Putentzat eta eroentzat ez da demokraziarik izan"

Danele Sarriugarte

24 | HEZKUNTZA | LOMLOE Aldaketa dator ikastetxeetara

Mikel Garcia

30 | ZIBURUKO AZOKA "Euskararen errepublika irudikatzeko eguna"

Jenofa Berhokoirigoin

34 | KAZETARITZA | KEREM SCHAMBERGER "Hedabideen jabetza-egiturak baldintzatzen du informatzeko modua"

Gorka Bereziartua

37 | GIZARTEA Migratzaileek mugan bizi dutena bertatik bertara ezagutzen

Mikel Garcia

42 | KULTURA | JOSEBA TAPIA "Moderno aitzakian erdara hobesten dugu"

Kepa Matxain

42 | KULTURA | VOLTARINE DE CLEYRE Anarkista, besterik ez

Julen Azpitarte

Jabetza
Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Normaltasuna

Ukrainako gerrak 100 eguneko muga gainditu du. Azken asteotan Donbass eta Krimea iparraldeko lurretara “mugatu” da guda. Herrialdearen gehiengoan bonba hotzak isildu dira eta horrekin batera haien inguruko albisteen presentzia apaldu. Politikoki zuzenak diosku biolentzia ezin dela normaltzat jo, ezin garela ohitu. Baina interes politiko eta ekonomikoen arabera mailaketa makabro baten ondorioz, gerra bakar batek munduan barrena piztuta egon diren eta dauden beste gatazka armatu guztiak estali dituen bezalaxe, prozesu bera gertatzen hasi da Ukrainan eta Donbassen. Gerra beste albiste bat gehiago da. Argazkia, Buchan apirilaren 2an.

 V. GHIRDA / AP  AXIER LOPEZ



Tentsioa gora Donostiako Alde Zaharrean, GKSko eta gazte asanbladako kideen artean

 LANDER ARBELAIZ MITXELENA

Donostian, Alde Zaharreko Gazte Asanbladaren (AZGA) eta Mugimendu Sozialistaren artean gatazka sortu da. AZGAK salatu du GKSren inguruko hogeitaz lagunek eraso egin dietela bi pertsonari larunbatean eta GKS bere kide bati etxeko atarian jipoia eman ziotela gau berean. ARGIAk hitz egin du bertan izan ziren alde guztietako pertsona ugarirekin, gertatua berreraiki asmoz. Joan den astean Kijera gaztetxetik “ateratako” edo “lapurtutako” –bertsioen arabera aldatzen den hitza– materialaren harira lehertu da azken gatazka. Zenbait egunez tentsioak etengabe gora egin ostean, larunbat gauean jipoiak eta borrokak izan dira Alde Zaharrean.

Testuinguruan kokatzeko, azken urteetan Donostiako Alde Zaharrean tentsioak izan badira ere, nolabaiteko elkarbizitza mantentzen zen eragile ugarien artean, eta kontuan hartu behar da ia denek batez ere kale bat partekatzen dutela: Ikatz kalea. Horrez gain, ia anomalia gisa, norbanako eta beste eragile batzuekin batera, elkarrekin antolatuta zeuden Ernai, Jarki eta GKSko militante ugari Alde Zaharreko Gazte Asanbladan (AZGA). Joan den astera arte.

Giroa txartuta iritsi zen larunbatea. Gaztetxeko materiala lapurtu zutela egotzita, aurreko egunean AZGAK erabaki zuen aho batez GKS botatzea asanbladatik, eta AZGA izatea gatazka hau kudeatzeko eragile nagusia.

GKS salatu du bere kide batek, Kijera kanpoan grabatutako bideoetan nabarmen ikusten zenak, astebetez memeak, irainak, fotomuntaiak eta azkenik heriotza mehatxuak jasan behar izan dituela, eta gainera, lanetik bota zutela ostiralean, bere ustez, Ezker Abertzalearen aginduz.

Ernaiko jende gehiena Bilbon antolatutako manifestazioan zegoen, eta GKSkoak Itaiak Hernanin antolatutako jardunaldietan.

20:30EAN LEHEN BORROKA

AZGAK dio 20 pertsonak bi lagun jipoitu zituztela Ikatz kalean. GKS ingurukoek diote ez zela izan 20 biren aurka, baizik eta bost bat –inguruan jende gehiagorekin– pare baten aurka eta ukabildak gurutzatu zituztela. Lekuko izan ziren pertsonak diote eraso jasan zuten bi pertsonetako batek lurrean amaitu zuela ostikoak eta kolpeak jasotzen.

Honela kontatu du AZGAK: “20:30ak aldera AZGAKo kide bat eta auzoko gazte bat erasotu eta jipoitu zituzten ildo sozialistako 20 bat kidek, eta esan beharra dago gainera, ildo sozialistako militante asko kanpotik etorriak izan zirela. Gainera, egoera lasaitzera sartu zen auzotar oro mehatxatua eta erasotua izan zen”.

Honela dio GKS bere oharrean, zergatik joan ziren pertsona horiengana: “Militante sozialistei eraso gehiago egiten ez ziotela utziko esatea zen helburua. Izan ere, Jarkiko kide hori izan da aste honetan bertan GKSko kide bati ukabildak jo

diona. Donostiako militante sozialistok hainbat bider mehatxatu gaitu edo espazio publikotik kanporatzen ibili izan da –tabernetara sartzea galaraziz adibidez–. Liskarrean hasi ostean, elkarri joka amaitu zuten pertsona horiek eta AZGAK gertaerei eman nahi dion izaeraren kontrara, ez zen lintxamendurik egon, borrokaldi tipiko bat izan zen. Izan ere, mugimendu sozialistako dozena bat kide inguru geunden guztira kale horretan eta borroka hasi zenean, gehiengo gerturatu ginen arren, horietatik laurdenak hartu zuen parte borrokan”.

Joka ibili zirenek alde egin zuten Ikatz kaletik. Denak ez ziren Donostiakoak. GKStik diote aste osoan zehar jasan duten jazarpenaren ondorioz erabaki zutela beren kideak babestera inguruko herrietatik jendea joatea.

GAUERDIAN BIGARRENA

GKSko pertsona batzuk Trinitate enparantzako komunetara pixa egitera joan zirenean, Herria aurrean zegoen ordu batzuk lehenago liskarra izan zuten pertsonetako bat, AZGAKo eta Jarkiko kidea bera. Elkarri irainka eta oihuka hasi eta tentsioa lehertu egin zen segundo gutxian. GKSko jendea azkar hurbildu zen ingurura –baten batek aurpegia estalita– eta Herriako sarreran aurre egin zieten. Jende askoren arteko borrokak lauzpabost minutu iraun zituen.

Honela dio AZGaren oharrak: “AZGAKo bi kide kalean zeudela ildo sozialista-

Baxoa

Baxoa euskaraz egiteko Seaskaren eskaera atzera bota du Paueko Administrazio Auzitegiak. Maiatzaren 23an aztertu zuen auzitegiak auzia, eta pasa den astean ezagutu da ebazpena: euskaraz ikasten duten ikasleek jarraitu beharko dute Baxoa azterketa euskaraz egiteko aukerarik gabe.

Transexualak

EAEko trans legea erreformatzeko eztabaidan diren honetan, urtea amaitu aurretik Osakidetza transexualen arretarako zerbitzua martxan jarriko duela iragarri du Jaurlaritzak, hasieran Gipuzkoan eta Bizkaian, eta adin txikikoei zuzendua. Laguntza psikologikoa eta afektiboa du xede.

Presoak

Espainiako Auzitegi Gorenak Xabier Atristainen kasua ez berrikustea erabaki eta ordu gutxira Donostiako Alde Zaharrean ertzainek atxilotu egin dute euskal preso eta berriz ere Martuteneko espetxean sartu dute. Atristainek 17 urteko kartzela zigorra jaso zuen, eta horietatik 12 egin ditu.

ko hiru kide aurretik erasotua izan zen kidearengana harropuzkeriaz oldartu ziren. AZGako beste kidea egoera lasaitzen saiatu arren, ildo sozialistako 40 bat militante kalearen bi muturretatik (atze-ko aldetik sartu zirenak buruestaliak) kristalezko botilak auzotarroi botaz auzotarron aurka oldartu ziren”.

Horrela dio GKSren oharrak: “Aurrez aipatu dugun Jarkiko militante berak arratsaldeko gertakarietan egon ez zen Donostiako militante sozialista bat harrrapatu eta liskarra probokatu zuen, eta horren ondotik, bigarren borrokaldi bat gertatu zen, jende askoren artekoa bi aldeentzako partetik –Ezker Abertzalea eta Jarki uneoro elkarrekin aritu ziren–”.

Herria kultur elkarteak ateratako oharrean dio Ikatz kalean bi eraso izan zirela, eta bigarrena “Herria tabernaren kanpoaldean geunden jende-talde handi baten aurka, adin desberdinetako auzotarrak tartean (...) Erasotutako antolatua izan zen: ildo sozialistako Donostiako militanteek gain beste herrietako matoiak ekarri zituzten enkaputxatuta zuzenean norenengan jo bazekitela. Alde batetik zein bestetik izan ginen inguratuak”.

Horren ostean, Herria taberna itxia erabaki zuten. “Urte luzez aritu gara auzogintzan lanean, baina tokatu izan zaigu gure kalean beste erasotako deskontrolatuen erasoak ikusi eta pairatzea. Horrelako erasoen aurrean, auzo bizigarri eta seguru baten alde lanean jarraituko dugu, beti egin dugun bezala”.

ETXERA BIDEAN, ERASOA

Azkenik, GKSko kidea, sare sozialetan lintxamendua salatu duena eta lanetik bota zutena, etxera abiatu zen beste pertsona batekin. Biak bereizi zirenean, etxeko atarian, atzetik pertsona bat etorri eta kolpeka hasi zitzaion. Lurretik altxa eta berriro joka hasi behar zitzaio-



nean kide batzuk hurbildu ziren eta hala amaitu zen gertaera hori. Igandean Instagrametik heriotza mehatxuak jaso dituela salatu du.

DESADOSTASUN ETA KORAPILO POLITIKOAK

GKS inguruko kideek sentitzen dute gatazka ez dela Donostian gartzetxeko materialaren harira hasi, baizik eta maila nazionalen, Ezker Abertzaleak “betatu” egiten duela espazio politiko ugarran, adibidez, herrietako txosnetan, eta horrekin finantzieroki “ito” nahi dutela. Mugimendu sozialista “zokoratzeko” ahalegina ez dela berria.

Kontrara, ezker abertzale bueltako zenbait jende uste du GKSko Euskal Herri mailako estrategia duela taltza biltzeko beraiekin. Eta zehazki Donostiako Alde Zaharra joanda, ez duela sekula lortu asanblada “kontrolatzea”, eta atzean apustu politiko batekin, “taltza biltzea” erabaki dutela jaima, aulki eta mahaien harira.

AZGako eragileek garbi ikusten dute GKSko materiala “lapurtu” diela, ez zela beraia, izaera komunitarioa zuela eta ez zutela eskubiderik udaltzaiekin negoziatu, hartu eta eramateko, nahiz eta bi urte zeramatzan hor.

GKSko kontrara, ikusten du Ezker Abertzaleak “gatazka biltu” nahi izan duela gertaera honekin, eta beren mugimendua “desprestigiatzeko” eta bere militanteak “politikoki suntsitzeko” saiatu direla. “Guk ez genuen kriston foilioia eduki nahi aulki batzuegatik”, adierazi dio kide batek ARGIAri. Salatzeko dute, materialaren egun hartan AZGako kide batek GKSko bati ukabildura bat eman ziola eta iskanbila grabatu izanak frogatzen duela hasieratik nahi zutela gizarteratu.

Zein izango dira honen ondorio politikoak? Alde batek eta besteak uste dute, egoera hartzen ari den itxura ikusita, herri gehiagotan errepika daitezkeela istiluak, are gehiago herrietako jaiak ate joka eta txosnen inguruan tentsioak daudela kontutan hartuta. ●

Seaska

Hiru gela aurrefabrikatutako osatzen dute Beskoitzeko ikastola, eta haurren ongizateari eta proiektuak garatzeko beharri erantzun asmoz, ikastetxea eraikitze baimena eskatu diote Herriko Etxeari, ez besterik. Udako kontseiluarekin bildu dira eta ekaina amaieran izango dute erabakiaren berri.

Euskara

EuskarAbentura espedizioa Maulen hasi eta Getxon amaituko da aurten, izaera ibiltaria berreskuratuz. Inoiz baino gazte gehiagok eman du izena EuskarAbentura espedizioan: 16-17 urteko 128 lagunek hartuko dute parte. 31 etapatan 700 kilometrotik gora egingo dituzte uztailan.

Argia

Argi-kutsadura eta energia kontsumoa murrizteko asmoz, sistema berritzailea jarri du martxan Urruñako Herriko Etxeak: gauez itzalita izango dira kale-argiak, eta herriarrak berak mugikorraren bidez piztu ahaliko ditu (15 minutuz), herrian zehar ibili behar duen nean.

EKONOMIA

Etxetik kanpora, diru gose diren putreak elikatzeko



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Espainiako Gobernuak iragarri du Ukrainako gerraren ondorioak eramangarriagoak egiteko neurriei beste hiru hilabeteko epea emango diela. Arnasa, bizirautea nekez lortzen dutenentzat. Edo diru publikoz ordaindutako denbora, inperialisten artean munduko baliabideak nork kontrolatu borrokatzen jarraitzeko. Lehen aukerari garrantzia kendu gabe, gaitza elikatzeak eta sistemari mugarik gabe birsortzeko aukera ziurtatzeak ez du ezer konponduko, kontrakoa.

Nafarroan, gobernuako kideen arteko liskarrekin bada ere, onartzeaz dago etxebizitza legea. Madrilen onartu zuten Espainiako Estatu mailakoa, eta urteak dira Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortu zela. Marko arautzaile ezberdin horren barruan egingo dira aste honetan iragarri diren etxegabetzeak. Legeak hor egonda garestitu dira %35 alokairuak Donostian, eta bizi osorako zorpetzea da, oraindik orain, bizitoki bat lortzeko bide nagusia.

Espekulatzaileak dira herri eta hiri gehienetan nor-non biziko den praktikan erabakitzen dutenak. Eta indartzen ari da erantzuna. Sendotzen ari da bizirautea beste aukerarik ez edukitzea atzean utziz, bizi proiektu duin baterako aukerak ekarri behar dituen borroka. Beharko ditugu etxebizitza legeak, noski, espekulazioari neurri eraginkorrekin aurre egingo dietenak. Ipar Euskal Herrian konpentsazio legearen kontra epaitegietara joko omen du Airbnb-k, hartu den neurriak etxebizitza eskubideari negozioa gailentzea oztopatzen duenaren seinale. Badago beraz gaitzari aurre egiterik, hirietan putreak elikatzeari utziz gero! ●

ANALISIA



X. LETONA

Hartu Gazteluko plaza!

XABIER LETONA BITERI

Iruñeko Sanferminetan Navarra Sumak Gazteluko plazako giroa aldatu nahi du eta plaza barnean hamar taberna-barra jarri. Bestela botilitzarraren eremua bihurtzen ari zela diote, harako beste giro bat nahi duela azpimarratu du Enrique Maya alkateak; eta Javier Labairu Seguritasun zinegotziaren esanetan –ez da txantxa–, horrela saihestuko da herritarrek belarguneak hartzea. Hamar barra gehiago eta DJak egunean zehar eta gauez, arratsaldeko ohiko dantzaldi eta gaueko kontzertuaren ordeaz.

Tira, jadanik zarata eta alkohol asko dagoen gunera, bietatik gehiago eramatea da hori. Askok diote, eta ez arrazoi faltarik gabe, eredu berriarekin bai bihurtuko dela plaza turisten botilatzaile gune ofiziala. Agur, beraz, unean uneko "lasaitasun" tarteei edo giro herrikoari, non, funtsean, Iruñea den nahas-mahas hori maiz elkartzen den. Hamar barra gehiago plazara, hartan jadanik 14 ostatu daudenean, eta inguratzen duten kaleetan beste 53 (22 Estafetan, Mercaderesen 5, 3 udaletxe plaza, Comedias eta Pozo Blanco 9, eta San Nikolasen 14).

Eta barra kontuok iruindarren artean bolo-bolo dabiltzanean, Herri Sanferminetik iragarri dute aurtur ez dituztela jarriko azken urteetan Errekoletak eta O plazetan paratu dituzten festaguneak. Navarra Sumak ez die utzi, "auzokideei eragozpenak ekartzen zizkietela" argudiatuz. Neurri batean bai, jakina, baina ez Iruñeko gainerako festagune erraldoian egiten dena baino gehiago, eta seguruenik hiriko gune askotan baino askoz gutxiago.

Labrit aldapan azken 32 urteetan egon den karpagunean baino askoz gutxiago bai, hori ziur. Aurtur kendu egingo dute. Eta bide batez, hori ere komeni da azpimarratzea, Maya alkateak horretan asmatu du aurtengo sanferminetako berrikuntzen iragarpenetan, hamarkadetako utzikeriak ez baitu esan nahi festak eta herritarren arteko bizikidetzaren eredurik txarrena –Labrit aldapako karpena– betikotzeko eskubidea dagoenik.

Azken finean, utikan bertaratu nahi duten guztiei bideratutako festa herri-tarrei, eta betor Sevillako Feria Gazteluko plazara. Herri Sanferminen egungo ereduak –egungo festa ereduak oro har– badu zer aztertu eta aldatu, dudarik gabe, baina azken urteetan sumatu da ahalegina, eta eskertzekoa da. Herri Sanferminetako espazioetan goizetan edo arratsaldean umeez euren espazioak izan dituzte, gaztetxoek badituzte festari ekiteko toki seguruagoak, lagun taldeek eta familiek eguerditan bazkaltzeko espazioak eta azpiegitura, bertako musika taldeak dira protagonista, festa deszentralizatzen laguntzen dute, euskara existitzen da... Aurreko legealdian EH Bilduk, Geroa Baik eta Aranzadik sostengatu zuten Joseba Asironen agintaldian festagune horiek eraikitzeak aukera izan zen –beste hamaika kontu moduan–; orain hiriko eskuin atzerakoiak erdigunetik kanporatu egin ditu. Amaier duela bost mende nola, aurtur Mayak Gazteluko plaza hartuko du. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bizitzaren laburtasunaz



ARITZ GALARRAGA

Puntxa galtzen ari gara: Seneka aipatu, laburzki bada ere, eta haren irakaspen handienetako bat ekartzeko aukera galdu, bizitza guztian lagun izan dudan ideia bat, irakurri nuenetik bederen –MZri irakurri nion egiazki, baina orain badakit dela Senekarena–. Gehiengoaren iritziaren kontra, zeinaren arabera bizitza gauza laburra den, eta bizialdia arin baino arinago iragaten zaigun: “Ez dugu asti gutxi, berau soberan galdu bai, egiten dugu”. Alegia, aski luzea dela bizitza, eginkizunik handienak burutzeko nahiko eta sobera, hura osorik eta ongi maneiatuz gero. *Bizitzaren laburtasunaz* liburuan dio: “Ez dugu bizitza laburra hartzen, geuk egiten dugu labor”. Luxuan eta alferkerian lardaskatzen denean, gauza onerako erabiltzen ez denean... “saihetsezineko azken orduaren poderioz, zebilenik ere erreparatu ez genuen bizitza joan zaigula sentitzen dugu”. Bizitzaren eragozpenik handiena litzateke, beraz, biharamunari begira gaurkoa galtzen duen esperantza –euskaldunok ezagutzen gaituela dirudi: “Eguna, gauaren esperantzan galtzen dute; gaua, berriz, egunaren beldur”–. Baina tenore osoa norbere onerako gastatzen duena, aldiz, egunak banan-banan, bere azkena bailiran antolatzen dituen, “ez da geroaren beldur, ez irrika”. Besterik da egiteko erraza ote den hori, edo zuzenean eginezina.

Bizitzeari buruz bizitza osoan zehar ikasten da, diosku Senekak, eta bizitza osoan zehar ikastekoa da, halaber, nola hil. Zentra gaitzen lehenengoan, ematen baitu horren gaineko pistaren bat Kordobako filosofoak. Baga: “Zoriontsu da, beraz, natura-rekin bat datorren bizitza”. Biga: “Zoriontsu dei diezaiokegu, arrazoiaren poderioz ezeren irrika, ezeren beldur ez denari”. Eta higa: “Iritzi zuzenekoa da zoriontsu; orainaldiarekin, nola-nahikoa izanda ere, gustura dagoena da zoriontsu, bere gauzen adiskide dena; zoriontsua da bere gauzen antolaketa osoa adimenpean uzten duena”. Bego. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

Petrolioa

Europako Batasunak erabaki du Errusiako petrolioa itsasontziz ekartzea debekatzea 2023an, baina baimendu du Druzhba petroliobidez ekartzen segitzea. Errusiako petrolioarekiko embargo partziala ezarri du. Errusiatik Europara datorren petrolioaren bi heren ekartzen da itsasontziz.

Migrazioa

Zazpi migratzaileri muga igarotzen lagundu diete moztarrotutako dozenaka lagunek. Euskal errepublikaren aldeko Ehun mugimenduak antolatuta, Irundik Hendaiara arteko bidea egin dute oinez, Frantziako Poliziaren aurrean. Ondoren Baionako Pausa harrera-gunera lagundu dituzte.



TEKNOLOGIA

Nagusi autonomo bakartiak?



DIANA FRANCO

Bizitza eta berau jasotzeko historiaren praktika ez dira marra zuzenak. Agian denbora asko igaro beharko da egun bizitzen gabiltzana ondo ulertzeko. Gaur, gure inguruan ditugun haur gehienek ez dute eza-gutu pantaila gabeko mundurik. Aldi berean, leku berean denok pantailak baditugu ere, bakoitzaren errealitatea oso ezberdina da, irakurri eta idazten jakin barik pantaila-erabiltzailea izan baitzaitezke. Egun, pantailaren ideia telebistaren ideiatik urrun dago: paper adimentsua da pantaila, lokatz adimentsua, musika tresna adimentsua.

Pantaila interfazetzat duten tresna adimentsuek erabilera errazteko helburua dute. Guk egin beharreko lana murrizteko diseinatuta daude eta errealitate berri honetara azkar moldatzen ari gara gizakiok. Baina denbora espazio berean beti bizi izan dira behar oso ezberdinak dituzten pertsonak: bakardadean daudenak, gaitasun digital gutxi dutenak, muga fisiko zein kognitiboak dituztenak... Kasu hauetan, pantaila barik gailuen gorpuzkera berriak etxeetara sartzen hasi dira, hala nola bozgorailu forma duten laguntzaile birtualak. Non soinu (ahotsa) den aginduen sarrera bide nagusia eta egitekoaren irteera modu oso ezberdinetan eman daitekeen: argiak piztu, soinu, tenperatura kontrolatzea... *Weneed-talk.ai* saiakeran, Julia Schneider eta Lena Kadriye ikertzaileek gai horien inguruan gogoetatu dute, komiki formatuan. Nagusien kasuan, bada gauza bat arreta ematen didana: gizaki bezala, badirudi helburu bat zahartzaroen ahalik eta modu autonomoenean bizitzea dela, eta horretan adimen artifiziala lagungarria izan daiteke askoren ustez, etxe domotizatuen bidez eta objektu ezberdinetan gorpuztutako laguntzaile birtualen bidez. Badut sentsazioa, ordea, egun egiten ditugun hainbeste gauzetan bezala, horrelako gailuak nagusien etxeetan zabaltzen badira, gure arreta nagusietan jarri beharrean nagusien laguntzaile birtualetan jarriko dugula, euretz arduratzeko modua gailua martxan mantentzea bihurtuko dela. Apur bat gehiago urrunduko gara. ●

NAZIOARTEA



Gerrak gerra du maite

AXIER LOPEZ

Munduko gastu militarra bi bilioi dolarretik gorakoa izan da 2021ean, Stockholmeko Barkerako Ikerketen Nazioarteko Institutuaren datuen arabera. Etengabe hazten eta puzean ari den arlo belikoan inoiz izandako zifrarik altuena da. Armata diru gehien bideratzen duten herrialdeen rankingean buru AEBak daude. Datua ikaragarria da: munduan gerrarako tresnetan gastatzen den diruaren ia %40 haiena da.

Lasterketa armamentistiko berriak, militarismoak eta "etengabeko segurtasunaren" beharrak zabaltzen jarraitzen dute 2022 honetan. Adibide adierazgarria da Suedia eta Finlandia bezalako bi herrialde munduko erakunde militar nagusietako batean -NATO- sartzeko prozesu betean egotea. Orain arte neutralak izan diren bi estatu dira, errefuxiatu politikoei asilo eta laguntza ematen eskarmentu handia dutenak, baita gatazka armatuetan bitartekaritza egindako lanetan ere. Finlandiako Gobernuak 2007an sustatutako inkesta batek erakutsi zuen finlandiarren ia %70ek errefusatu egiten zutela NATOn sartzea. Gerra bat haien mugetatik gertuago ikusteak aldatu egin du panorama.

Bestalde, Europar Batasuneko potentzia ekonomikorik handieneko parlamentuak aste honetan onartu du Bigarren Mundu Gerraz geroztik Alemania "berrarmatzeko planik" handiena. Parlamentari gehienek ez dute

eragozpenik izan Konstituzioa aldatzeko ere, eta hala, "Alemaniako armadaren gaitasunak hobetzeko" 100.000 milioi euroko funtsa sortuko dute. Defentsaren urteko gastua 20.000 milioi eurotan handitzeko baliatuko dute, urteko 70.000 milioi euroraino. Hori ez da izan Alemaniak militarizazioaren alde egin duen aldaketa bakarra: armak esportatzeko politika murriztaileei ere amaiera eman zieten ukrainiarren lubakiak pistolaz, bonbaz eta tankez betetzeko.

Berrarmatze masibo horrek atek ireki dizkio Alemaniari Europako potentzia militarrik handiena eta munduko hirugarrena bihurtzeko, AEBen eta Txinaren atzetik. Militarismoari eta industria militarri emandako aupada sozialdemokratek (SPD), liberalek (FDP) eta berdeek adostu izana oso adierazgarria da. Bai, ekologismoa eta munduaren jasangarritasunaren aldeko politikak oinarri dituen alderdi batek gizakiak elkar hiltzeko eta mutilatzeko arma hobeak erostea hobetsi du. Eta jakina, oposizioan dauden indar atzerakoiek ere erabakia babestu dute, txalo artean. Alemaniako sozialdemokratek, SPDko Nils Schmiden hitzetan, ondo jaso dute European gailentzen ari den ikuspegia: "Errusiarekiko elkarriketak eta lankidetzak ez dute funtzionatu. Segurtasunaren aro berri batean sartu gara European". Alegia, gerrari aurre egiteko zer hobe arma eta soldadu gehiago baino? ●

70

hartz eta 8 otso atzeman ditu gutxienez Pirinioetan, 2019tik martxan den proiektu batek. Hartz eta otsoen populazioa monitorizatzea eta bereziki jarraipen genetikoa egitea du helburu proiektuak, besteak beste.

10 milioi

euroko isuna ezarri dio Googleri Espainiako Datuen Babeserako Agentziak, erabiltzaileen datuak hirugarrengoei partekatzeagatik eta "ahaztua izateko eskubidea" oztopatzeagatik. Twitterrek 150 milioi dolarreko isuna jaso du, datuak publizitaterako erabiltzeagatik.

4

eguzki plaka jarriko ditu I-Enerrek uda honetan: Sara, Donostia, Garazi eta Orreaga. 2014an sortu zenetik, 17 zentral fotovoltaiko jarri ditu martxan Euskal Herrian.

"MERKATU ASKEA PLANTEATZEN DA HEZKUNTZARENTZAT; ESKOLA PUBLIKOAK HORTIK KANPO BEHAR DU"

"Inoiz baino gehiago aldarrikatu behar dugu eskola publikoa. Jendeak jakin behar du EAEko Hezkuntza Legean ez dagoela inongo asmorik eskola publikoa lehenesteko, eta are okerrago, arriskuan dagoela eskola publikoa"

"Legeak merkatu askearen antzeko sistema planteatzen du hezkuntzarentzat, ea eskola bakoitza zein eta zenbat ikasle erakartzeko gauza den. Eta horren emaitza ikusi dugu jada: segregazioa"

"Bihurtu dezagun eskola publikoa sare indartsu bat, guztion parte-hartzetik eta elkarlanetik"

"Euskararekin erronka handia daukagu: eskola publikoko gurasoek apustu garbia egin dute D eredua aldatzeko eta oraindik badugu zer hobetu bide honetan, tartean eskolaz kanpoko ordutegietan euskararen erabilera bermatuz"



LURDES IMAZ

Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkartearen koordinatzailea elkarriketatu dugu, Euskal Eskola Publikoaren 29. Jaia kari.

ARGIA.EUS/HEZKUNTZA (2022-06-05)

GOSEAREN GEOPOLITIKA: UKRAINAKO GERRA DA AZKEN ERREMATEA, **GOSETEA LEHENDIK** **HANDITZEN ARI ZEN MUNDUAN**

Ezker internazionalistan klasiko bat den Centre Tricontinental elkarteak aldizkari berezia eskaini dio gosearen geopolitikari: *Un système alimentaire à transformer* ("Eraldatu beharreko elikadura sistema"). Gosetea, azken hamarkadetan, eten ez, baina zabaldu egin da, nahiz eta aspalditik egon formulatuta mundu guztia elikatzeko alternatibak. Ukrainakoak azken kolpea eman dio mundutar guztiak asetzeko gaitasunik ez duen sistemari.

 **PELLO ZUBIRIA KAMINO**

Erussiarrek Ukraina inbaditu zutenerako, otsailaren 24an, inprimategian zegoen Centre Tricontinental-ek (CETRI) argitaratu duen *Un système alimentaire à transformer* ("Aldatu beharreko elikadura sistema") hainbat adituren artean ondua. Geroztik, *20 minutes pour comprendre* podcastean elkarrizketaturik, CETRIren ikerketaburu Laurent Delcourt soziologo eta historialariak aurkeztu ditu lerro nagusiak. Hemen laburbildu dugu *Géopolitique de la faim* ("Gosearen geopolitika") izenburuko elkarrizketa.

Lehen egiaztapena: aktualitatearen leerro nagusietan azaldu ez arren, gero eta jende gehiago bizi da goseak hil edo gaitzotzeko arriskuan. 2015ean Nazio Batuen Erakundeak garapen iraunkorrerako proposamenak onartu zituenean, gizadiaren helburu nagusien artean izendatu zuen 2030rako munduan gosea desagerraraztea. Geroztik, ordea, zazpi urteotan handitzen jarraitu du. 2015ean kalkulaten zen 630 milioi pertsona zeudela goserik munduan. 2019rako 50-70 milioi gehiago ari ziren janari falta kronikoa jasaten. Hori zen COVID-19 zabaldu aurretik...

Koronabirusak eta hura kontrolatu nahian 2019tik ezarritako itxialdi eta murrizketek arriskuan jarri zituzten eli-

kagaiak ekoiztu eta banatzeko nazioarteko zirkuituak. Gainera, ekonomiaren izozteak eragindako lanpostuen galtearekin –bereziki ekonomia ez formalean– milioika familia geratu ziren diru sarrerarik gabe. Eta XXI. mendean dirurik gabe, otordurik ez. 2022 hasieran goseteak munduan jada 870 milioi pertsona zeuzkan harrapatuta. Baina hori gutxi bazen, Ukrainako inbasioa eta gerra heldu da.

Gosearen banaketa geografikoa lotuta dago herrialde bakoitzean familielik daukaten diru sarrera mailarekin: "diru gutxi daukaten herrialdeak" esan beharko genuke, ez "janaririk ez daukaten herrialdeak". Herrialde behartsuak, txiroak. Esaterako, Afrikako Sahelakoak, azken urteotan nagusiki Niger, Burkina Faso, Txad, Mali eta Mauritania. Gero datoz gerran daudenak edo egon berri direnak, Afganistan, Yemen... Hor daude Asian Hegoaldeko Bangladesh, India eta Pakistan ere. Eta Erdiko Amerikakoak, krisi oso sakona nozitzen ari direnak; krisi horrek eragiten ditu bai elikatzeko arazoak eta bai migrazio masiboak.

Sahelen azken urteotan bikoiztu egin dira goseak dauden jendeen kopuruak eta migratu dutenenak lau hala-

kotu. Berdin egin dute okerrera Afrikako Ekialdeko Adar deituan –Etiopia, Eritrea...–, Sudanen eta Hego Sudanen. Madagaskar uhartearen hegoaldeak azken bi urteotan bizi du sekulako lehortea –klimaren berotzeari lotua dela hain nabarmen ikusi den lehenbiziko idorte handia– eta arriskuan jarri du bi milioi pertsonaren biziraupena. Eskualde horietatik kanpo ere badira elikagaien segurtasunean atzera egin dugula dioten adibide adierazgarriak: Brasil batean, XXI. mendearen lehen 15 urteetan gosea desagertutzat jo zen, baina azken urteotan berriro azaldu da.

ELIKAGAI MERKEEN MORROI

Gerrak, klimaren zoratzea eta –energia krisiaren eraginez– laborantzarako ongariaren garestitzea estuki lotuta daude goseteekin. Baina tragedia honek baditu beste bi osagai funtsezko, bat gutxi aipatua: Delcourtek "elikagaien gobernantza" deitzen duena, hots, gauza bat dela nazioarte mailan gosea desagerrarazteko helburuetan adostasuna lortzea, eta oso beste bat horretara iristeko estrategia eta politiketan ados jartzea.

NBEk historikoki FAO Elikadura eta Nekazaritzaren Erakundea eduki du ara-



USAID

Haurrak Kenyako Turkana herrian, buru gainean hartuta AEB-en laguntza humanitarioak banatutako olio potea. Goseteak hobera ez baina okerrera egin du munduan urteotan.

zo honen aurrerabideak lantzeko tresnatzat, baina AEBak beti mesfidatu dira FAOz eta lortu dute Elikagaien Mundu Programa -WFP ingelesezko sigletan- bilakatzea munduko gosearen erreferentziazko tresna.

NBERen batzarrarentzat bezala, FAOren oinarria baldin bada "herrialde bat, boto bat" -Burkina Fasok boto bat, AEBk boto bat- WFP printzipio horietatik *askatuta*, AEBek lortu dute beren nahieran kudeatzea janari-larrialdiak, nagusiki AEBetako agro-industriaren soberakinak munduan zabaltzeko erabiliz.

Kontua da herrialde txiroak harra-patuta daudela AEBek 1960etatik, Gerra Hotzaren garaietatik, erabili duen estrategiaren ondorioengatik. AEBek -eta haren uberan, Mendebaldeko beste herrialde aberatsek- orduan erabaki zuten herrialde txiroak itotzea janari merketan. Ordurako Mendebaldeak urteak zeramatzen nekazaritzako pro-

duktuak soberan ekoizten. Horiek -dirulaguntza publikoz *dopatuta*- leku guztietara barreiatu zituzten, bertako nekazarien produktuak baino askoz merkeago salduz. Berehala, ordura arte elikagaiak esportatzen zituzten herrialde asko bilakatu ziren janari merkeen inportatzaile.

Populazioen elikadura planifikatzeko modu hau ideologia izatera iritsi zen 1980eko hamarkadan, neoliberalismoa nagusitu zenean Mendebaldean. Ronald Reaganen Nekazaritza ministroak esan zuen moduan, herrialde txiroek elikatze bidea ez zen nork bere elikagaiak sortzea, baizik eta AEBei erostea elikagai merkeak. Geroztik, zorretan itotako herrialde batek Nazioarteko Diru Funtzarekin eta Munduko Bankuarekin finantza-irtenbideak negoziatzerakoan, baldintzetako bat zen nekazaritzan ez dirurik inbertitzea.

2008ko krisiak erakutsi zuen nekazaririk gabe geratutako herrialde

zorpetu bat gauetik goizera aurkitu zitekeela herritarrei eguneroko ogia edo arroza segurtatu ezinean. Ondoko hilabete eta urtetan janaririk ezak eragindako matxinadak ez ziren gutxi izan, baina *gosearen munduko gobernantza* aldatzea lortu barik. 2000tik 2015era artean, munduko herrialde txiroenen taldeak ikusi du elikagaien inportazioen faktura igotzen 2.5000 milioi dolarretatik 33.000 milioietaraino.

"Zer gertatzen da, funtsean? Txiroari debekatzen zaio nekazaritza sustatzea, populazioaren gehiengoa osatzen duten nekazariei debekatzen zaie beren lanetik bizitzea, herrialde eta jende horiek inportazioen morroi bihurtzen dira. Nazioarte mailan elikagaiak garestitzen baldin badira, hondamendia da. Horretan gaude. Arazoa menpekotasuna da. Hil ala bizikoa da birlokalizatzea, bai elikagaien produkzioa eta bai beste produkzio askorena. Hil ala bizikoa haientzako... eta guretzako ere bai". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Andrea Momoitio

MEMORIA HISTORIKO FEMINISTA

“

PUTENTZAT ETA EROENTZAT EZ DA DEMOKRAZIARIK IZAN

”

1977ko azaroaren 9an, María Isabel Velasco Gutierrezen gorpua aurkitu zuten Basauriko presondegiko ziega batean, kiskalita. 23 urte zituen. Istripua, arduragabekeria edo hilketa izan ote zen argitzeko dago oraindik. Velascoren kideek –Bilboko Gorte kaleko putak– eta hiriko mugimendu sozialek heriotza salatzekeo protestak antolatu zituzten. 45 urte beranduago, gaiari buruzko liburua argitaratu du Andrea Momoitio kazetariak: *Lunática* [Ilargi-joa] (Libros del KO, 2022).

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Zein zen María Isabel Gutierrez Velasco?

Egia esan, ez dakit. Jakin nahiko nuke, liburu hau egiteko zailtasun nagusietako bat izan baita ez dudala inor aurkitu María Isabel helduari buruz hitz egin ziezadakeenik, soilik senideak eta haurtzaroan ezagutu izan zuen jendea. Gauza esanguratsua da hori, iruditzen baitzait helduaroan ez zuela inork maite izan, ez zuela inork zaindu. Beraz, nire interpretazioak idatzi ditut María Isabeli buruz, bi iturri zehatzetan oinarrituta: agiri ofizial frankistak eta gizonen ahotsak. Hortik abiatuta, itzulpen- eta interpretazio-ari-

keta itzela egin behar izan dut, nor izan zen azaltzeko. Ziur aski, liburuko une bazuetan ausart samarra izan naiz, inork ez baitit baieztatu María Isabel benetan izan zenik nik irudikatu dudan emakume borrokalari eta errebelde hori.

Haren testuingurua zehatz-mehatz deskribatu duzu, halere.

Bai. Haien ama alargun geratu zen, eta María Isabel bera umezurtz, oso gazterik. Lehendik ere trauma handi bat izan zuten familian, María Isabelen ahizpa txikia, Mari Carmen, lau urterekin hil baitzen, auto batek harrapatuta. Handik gutxira





Andrea Momoitio

ORTUELLA, 1989



Kazetaria, ikasketaz zein lanbidez. *Pikara Magazine* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen, eta bertan lanean aritu da azken hamaika urteetan. Memoria historikoa, eromena eta kartzela interesatzen zaizkio, besteak beste. Hainbat komunikabiderekin kolaboratu izan du, esaterako, *Publico.es* edo *El Salto*-rekin.

hil zitzairen aita, eta Astillerotik Santanderrera joan ziren [Kantabria, Espainia]. Garai hartan, María Isabel beste-lako mundu batera hurbildu zen, bere jaioterrikoa ez bezalakoa. Eta garai hartan orobat, jendeok batez beste izan ohi duguna baino sufrimendu psikiko handixeagoa izan zezakeelako zantzuak agertu ziren. Hortik aurrera, amak, ez baitzen gai bere haurrak kontrolatzeko, instituzioen esku utzi zuen alaba.

“Sufrimendu psikikoa” terminoa erabili duzu liburu osoan.

Beldur pixka bat izan dut idatzi dudan bakoitzean, eta esaten dudanean ere mingainari kosk egiten diot, ez pentsa... Ez dakit ez ote den oso naifa, eta apur bat baldarra ere bai. Kosta egiten zait gaixotasunak direla esatea buru-osasunaz dihardugunean, eta nahiago dut sufrimendu psikikoaren terminoa erabili, batez ere psikiatriciaren logikari men ez egitearren. Gainera, María Isabeli, psikiatrizatutako beste hainbat pertsonari bezala, diagnostiko mordo egin zizkioten. Lurraldea konkistatzeko bandera bat jarriko balute bezala jartzen dituzte diagnostikoak psikiatrek. Hortik kanpo, gauza bakarra daukat argi: María Isabelek asko sufritzen zuela, ekaitz mordo bat zegoela bere barnean, oso zaila behar zuela izan haren buruaren barruan egotea, eta oinaze horren aurrean modu zehatz batzuetan erreazionatzeko zuela. Horixe besterik ez dakit. Bestalde, ez dut uste diagnostikoek ekarpen handia egiten dutenik, zeren, sarritan, sintomak antzekoak izaten dira, eta botikak eta indarkeriak ere bai.

Amak instituzioen esku laga zuela aipatu duzu. Zehazki, Emakumeen Babeserako Patronatua izeneko erakundearen esku. Zer zen hori?

Segur aski Patronatua da ulertzea gehien kostatu zaidan kontuetako bat. Gizarte-zerbitzuen moduko zerbait zen, baina neska eta emakumeei zuzendua bereziki. Espainiako Estatuan 60-80 zentro izan zirela identifikatu dut: zazpi ordena erlijiosoren artean zuzentzen zituzten, eta, batzuetan, eraikin osoa Patronatuari zegokion, eta hango neska guztiak erakunde horren tutoretzapean zeuden. Baina oso ohikoa zen, halaber, eskola erlijiosoetan Patronatuko laupabost plaza egotea, edo sei, edo hamar.

Neskatoak nola iristen ziren halako zentroetara?

Izan zitekeen familiak hartaz libratu nahi izatea, edo Poliziak edo auzokideren batek salatzea; orduan, adin txikikoa baldin bazen, Patronatura bidaltzen zuten zuzenean. Ohartu naiz nik neuk ere banuela buruan halako irudipen bat, errepresio frankista askoz bortitzagoa izan zela gizonen aurka, eta, LGTB kolektiboaren kasuan, maritxuen aurka. Eta, noski, beharbada ez zituzten hainbeste emakume espetxeratu, beharbada ez daude hainbeste emakume arekatan, beharbada ez zitzairen hainbeste emakumeri ezarri Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren legea: kontua da beste zirkuitu batetik bideratzen zituztela, eta gainera zirkuitu horri buruzko informazioari apenas dago, Artxibo Zentrala erre egin zelako, eta gero uholdeak izan zirelako, edo alderantziz; finean, agiri zentralak pikutara joan ziren. Eta, noski, ordena erlijiosoen ez dute zirkulatu egin horren ardura hartzeko. Agiri gutxi batzuk geratzen dira probintzietako artxiboetan, baina besterik ez.

Dena den, María Isabelen kasuan, legea ezarri zioten.

Ez zekiten harekin zer egin eta, egia esan, hainbat aldiz sartu zuten preso, baina ez hainbeste egin ahal izan zituen delituengatik –ugariak eta era askotakoak–. Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialaren legea tarteko bideratu zuten zirkuitu judizialera. Adin jakin batetik aurrera batik bat –eta hori ere ez dago inon idatzita– “neska errebeldeak” ez zituzten Patronatura bidaltzen, ezpada Arriskugarritasun eta Errehabilitazio Sozialeko Auzitegieta. María Isabeli hainbat espediente zabaldu zizkioten, hamaika arrazoi tarteko: sufrimendu psikikoa izateagatik, familiarari men ez egiteagatik, prostituzioan jarduteagatik, ordena publikoa asaldatzeagatik...

Bestalde, interesgarria iruditzen zait, eta esanguratsua ere bai, lege hori oso berandu sortu zela frankismoan: 1970ean onartu zuten. Urte horretara arte, Alferren eta Gaizkileen Legea erabili zuten, Espainiako Bigarren Errepublikakoa, aldatu gabe ia. Frankismoak eragozpenik gabe jaso eta ezarri zuen lege errepublikar apurretako bat izan zen.

Eta zergatik sortu zuten bada lege berri bat?

Garaian, nolabaiteko irekitasun bat



zegoen, eta uste zen arriskugarritasuna eta delituak halako ikuspegi zientifikoa go batetik ulertu behar zirela; horregatik aldatu zuten legea, ez gorria zelako. Une hartatik aurrera, esaterako, burua neurtzen zioten jendeari, kriminalitatearen azalpen fisikoago bat bilatu nahian, espikazio moralei edo perbertsio moralari erreparatu beharrean –horixe egiten zuten ordura arte–. Agiriak-eta irakurrita, bitxia da nola saiatzaren diren María Isabel arriskutsua zela erakusteko frogak bilatzen bere aurpegian.

Arriskutsua zen edo ez ebatzi aurretik hil zen, ordea.

Bai, atxilotu zuten azkenengo aldian izan zen hori. Madrilgo espetxe psikiatriko batera eramateko zain zegoen bera; oso prozesu luzeak izaten ziren. Azken atxiloaldi hartan, azaroaren 4an atxilotu zuten, eta 9an hil zen, txostenak iritsi aurretik. Poliziaren txosten batzuk María Isabel hil eta hainbat hilabetera iritsi ziren.

Eta zer gertatu zen hura hilda agertu ostean?

Unibertsitatean, Igor Ahedo izan nuen portaera politikoko irakasle –sekulako irakaslea zen–, eta laidoen bat-bateko agerpenaz hitz egin zigun hark: badago zerbait behin eta berriro gertatzen ari dena, eta, bat-batean, beste behin gertatzen denean, jendeak ez du onartzen. María Isabelen kasua horixe izan zen, besterik ez. Eta, bitxia da, zeren emaku-

me deserosoa baitzen bere kide prostituentzat. María Isabel ez zen atsegin, ez zen jatorra, ezin zen harekin berrikeria aritu. Beraz, deigarria da hain justu ere halako norbaiten alde mobilizatzea. Baina nik uste dut kideek bazekitela María Isabel bezalako pertsona batek ez zuela espetxean egon behar: aldiz, babesa jaso behar zuela jasandako indarkeria guztien aurrean, baina ez zen hala izan. Eta hara non kartzelan hil zen, 23 urterekin, erreta, Franco jada hilda zegoela eta nolabaiteko proiektu demokratiko baten hasiera izan zitekeela zirudienean. Pentsatzen dut Gorte kaleko putek ikusiko zutela haien tzat ez zegoela lekurik demokrazian. Ez baitzen egon, eta gaur egun ere ez dago, eta zoroentzat are gutxiago. Oraintxe bertan, Gurutzetan edo Basurtun, bere borondatearen kontra lotuta dago jendea; pertsona horiek, besteak beste, ez daukate botoa emateko eskubiderik.

Gorte kaleko sexu-langileek protesta egin zuten egoeraren aurrean. Greba egin zuten.

Hori hala esateak beldurra ematen zidan eta beldurra ematen dit oraindik, iruditzen baitzait garaiko prentsak protesta hura handietsi zuela: greba deitu zioten,

baina ez dakit putek hala egin izango zuket. Badakit, ordea, putek hau esan zutela: “Gaur ez dugu lanik egingo, iltzatu zakilak espaloian, segi emaztearekin”. Baina ez dut frogarik aurkitu grebaz hitz egin zutenik edo langile-klase bereko kideetat hartzen zutenik beren burua. Prentsan irakurri dut.

Prentsak koordinatu edo mintzaira zehatz batera itzuliko zuen, baina putek egiaz itxi zituzten Gorte kaleko taberna guztiak. Ekintza kolektibo bat egin zuten, elkartasunez, kide baten alde, ezta?

Bai. Gainera, kontu hau interesgarria da: prentsak eta Bilboko mugimendu sozialek –mugimendu feminista, LGTB mugimendua eta COPEL babesteko batzordeak– une horretan oraindik ez zuten planteatu ere egin prostituzioaren eztabaida; behinik behin ez didate halakorik azaldu, eta nik ere ez dut horri buruzko dokumenturik aurkitu. Inork ez zuen pentsatu ea puta izatea lana zen ala ez, inork ez zuen hausnartu gai horri buruz, eta hala ere grebatzat hartu zuten hura. Eta oso interesgarria da, oso-oso interesgarria, zeren, greba gisa ulertu bazuten, horrek esan nahi du oso posizio konkretuan kokatu zituztela putak: langilearen posizioan. Gaur egun ez dakit halako zerbait gerta litekeen.

Gaiz beste egin aurretik, estiloa aipatu nahi nuke. Ikerketako datuak xehe-xehe

dokumentatuta daude, baina zure ahotsa ere agertzen da liburuan.

Asko gustatu zait.

Liburuaren tonua apustu bat izan da. Zenbait pertsonak esan didate kontamoldeak atzera eginarazi diela zenbait unetan. Apustu arriskutsua zen; liburuko

hizkuntza *kinki* samarra da,

baina ni Ortuellakoa naiz, eta eroso sentitzen nintzen hor; ez da kasualitatea. Ez zait zaila suertatu Bilboko edo Santanderreko *kinki*-engana hurbiltzea. Berriz diot: Ezkerraldea, Meatzaldea. Ni hortxe hazi naiz, hori da nire mundua: mundu horretan, lapurreta leporatuta espetxeratzen dute jendea, ez idealengatik. Helduarora arte ez dut ezagutu bere idealengatik espetxeratutako inor. Eta María Isabelen mundua ere halakoxea zen.



Pikara Magazine proiektuko kidea zara hasieratik. Hamabi urte beteko ditu egitasmoak azaroan.

Gauza gutxi sentiarazten naute *Pikara*-k bezain harro; proiektu horrek nire bizitza aldatu du, beste askorena ere bai, eta oso harro nago egin dugunaz.

Zer helburu daukazue aurrera begira?

Guk eskaintzen genuena askoz errazago aurkitzen da gaur egun beste hainbat espaziotan ere; beraz, aurrera begira, proiektu gisa, gure tokia topatu behar dugu errealitate horretan. Barrurantz hazteko aukera daukagula iruditzen zait, eta uste dut hori dagokigula, edo niri behintzat hori gustatuko litzaidake. Mahai gainean jarri dugu kazetaritza feminista egiteko premia, eztabaida mordo bat ireki dugu –uste dut horretan jarraitu behar dugula, baina obsesionatu gabe–: eroso senti-

tu behar dugu gure leku nolabait ere abangoardiazko honetan, eta, orain, kazetaritza feminista forman gauzatu, lan-dinamiketan.

Nik, zehazki, gehiago idazteko gogoia daukat. Hazteko prozesuan azken kolpea falta zaigula dirudi, kazetariok idazteko modua emango ligukeen kolpea.

Argazkietan ez da ikusiko, oraindik ezin baita erakutsi, baina toki berezi-berezi batean gaude.

Non, Andrea?

La Sinsorga kulturgune feministan gaude, Bilbon, Askao kaleko 9. zenbakian. Espero dugu leku hau erreferentziazko gunea izango dela Euskal Herriko kultur eta pentsamendu feministarentzat, baita Espainiako Estatukoarentzat ere, eta nik nahi nuke jendea etor dadila Parisetik eta Berlinetik ere.

Irantzu [Varela] eta bion artean hasi gara espazio hau eraikitzen batez ere,

baina kolektiboarekiko daukagun afaren barruan betiere. Leku hau feminismoen biltokia izatea nahi genuke, Bilboko erdigunean gainera. Nik pentsatu nahi dut Mamiki bezalako zerbait izango dela, baina urte osoan: inorekin hitzordua egin gabe ere lasai etortzeko moduko leku bat. Segurtasun-espazio bat, garai latzak datoz eta.

Eta beste idazketa- edo ikerketa-proiekturik baduzu esku artean?

Baditut ideia batzuk buruan, baina egia esan oraindik ez naute guztiz obsesionatu, beraz hara eta hona nabil, zerk kateatzen nauen aurkitu arte. Badaude ikertu nahi nituzkeen gauzatxo batzuk, baina ikerketarako denbora eta diru asko behar da. Nik dirutza xahutu dut liburu honekin; ez dut jakin nahi zenbat... Ale asko saldu beharko nituzke errentagarria gertatzeko. ●



Iritziak

Hazkunde iraunkorra, ez al da oximorona?



IRATI LABAIEN
EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

40 gradutik gorako tenperatura izanda, nola atera daiteke bat etxetik? Maiatzaren erdialdean Kataluniako lagun batekin solasean ari nintzela, zera aipatu zidan: "Maiatzaren erdian honela bagaude, uda infernu moduko bat izango da". Garai bertsuan, komunikabideetan irakur genezakeen Indian eta Bangladeshen 40-50 gradu bitarteko tenperatura zutela, eta baita inoizko uholderik handienak ere. Hainbat adituk diote aldaketa klimatikoa migrazio arrazoi nagusia izango dela etorkizunean.

Larrialdi klimatikoaren afera nonahi irakur dezakegu, eta hainbatek zalan-tzan jartzen badu ere, bost zentzumene-kin senti ditzakegu naturak muturreko hotz-beroen bitartez egindako seinaleak. Debateak sinplifikatzeko joera dugun garaiotan, hainbatetan krisialdi ekologikoa klimarekin bakarrik lotzen da, eta bistakoa da ingurumenaren narriadurak askotariko ertzak dituela. Ezin ahaztu, esaterako, lur eta landarediarekin lotu-rikoak. Klimaren kontzeptuak ukiezina dirudi, eta ukiezintasun hori, aldaezintasunarekin lotzeko arriskua dago.

1972an *Hazkundearen Mugak* txostena argitaratu zenetik (*Meadows* txostena moduan ezaguna) mende erdia pasa da dagoneko, eta bertan zehaztu zirenak ez dira arrotzak egungo testuinguruan: gurean dugun ekoizpen- eta kontsumo-ereduak ezin du mugarik gabe hazi,

Teknologiaren garapena
nahikoa izango ote da
krisi honi aurre egiteko?
Egunetik egunera
oihartzun handiagoa
duen ekonomia
zirkularrak zurrumbilotik
aterako ote gaitu?

natura ez baita bere gain hartzeko gai. Are gehiago, *Aztarna ekologikoaren sare globalak* dioena kontuan hartuz gero (footprintnetwork.org), Euskal Herrian dugun eredu mundu mailara hedatuz gero, gutxi gora-behera maiatzaren 9tik aurrera ekoitzi eta kontsumitutakoak lurak xurgatzeko duen ahalmenetik at leudeke (urte naturala oinarri izanda).

Informazio hau guztia ezaguna da gehiengoarentzat; zoritxarrez, katas-trofikoak diren aurreikuspenetara ohi-tuak baikaude dagoeneko. Honela, horien aurrean, diskurtso orlegi bikainak eratu ditugu, *garapen iraunkorra* edota *ekonomia berdea* gisakoak. Hainbatetan, *iraunkortasuna* hazkunde ekonomikoaren bigarren abizen gisara planteatu ohi da; hots, sistema ekonomikoak kontuan hartu beharreko elementua bailitzan. Ekonomia eta enpresa ikasketetan, garai

batean, *externalizazioen* gisan ikasi genituen; hots, sistema ekonomikoak inperfekzioak zituela adierazi nahi zen. Baina, egiatan, sistema ekologikoa da marko nagusia, hori gabe, ez legoke beste ezer, existentzia bera ere ez.

Historian izandako gertaerek garbi utzi dute hazkunde ekonomikoa, bere horretan, ez dela jasangarria, ez ekologikoki, ezta sozialki ere. Baina, kurioski, oraindik ere, notizietako lehen lerroetan titular positibo gisan erakusten da. Planetak inoiz izan duen kontsumo-tasa altuena omen dugu lurralde aberatsak deiturikoetan bizi garenok. Hainbat kasutan, gainera, txirotuak izan diren herrialdeetako *low-cost* ekoizpen-prozesuen eta gehiegizko erauzketa prozesuen gain dago gure hazkunde.

Askok teknologia berrietan jarri ohi du arreta eta itxaropena, egiteko modu berrietan, ekologikoagoetan, alegia; baina teknologiaren garapena nahikoa izango ote da krisi honi aurre egiteko? Egunetik egunera oihartzun handiagoa duen ekonomia zirkularrak zurrumbilotik aterako ote gaitu? Ez ote dira itxura ederrez beteriko hitz hutsalak? Posible da mugimendu horiek guztiek aztarna ekologikoa txikitzen laguntzea, baina ikertzailea eta militante ekofeminista den Yayo Herrerok dioen moduan, Iparraldeko lurralde aberatsetako desazkundera ez da aukera bat, saihetsezina den gertaera baizik. ●

Biluztearen arriskuak



JUNE FERNANDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Zutabegile izan baino aurretik, blogaria nintzen. Agian horregatik ikasi nuen iritzi artikulua lehenengo pertsonan idazten. Ohartu nintzen erregistro horrek funtzionatzen zuela, gertua eta zintzoa zelako. Are gehiago, ahalduzaileria egin zitzaidan sentitzea nire ahotsak oihartzuna zuela. Ziberoprimista nintzen orduan.

Hogeitaka urterekin, nire ingurukoek behin eta berriro esan zidaten gehiegi biluzten nintzela blogean. Tartean ez nuen Gabriela Wiener kazetari eta idazle perutarra ezagutzen, baina intuitiboki bat egin nuen bere premisarekin: gure burua kontatzen dugunean, irakurlea ere kontatua sentitzen da.

Miresmena, arbuioa, inbidia eta epaia nahastu zaizkit Wienerren azken lana irakurri dudanean, *Huaco retrato* autofikziozko eleberria. Gehiegizkoa iruditzen zait bere liburu guztietan (*Sexografías*, *Nueve lunas*, *Dicen de mí...*) ageri den pudore falta. Aldi berean, erakartzen nau, nik erreprimitzen dudana joera askatu duelako.

Seguruenik, *Sexografías* irakurri berrikan argitaratu nuen *Puteras* izeneko testu bat nire blogean: idatzi nuen ordaindutako masaje erotikoez, prostituzio *queer* ekimen batez eta *jinetismo*-az, nire kuriositatea eta desero-

sotasunak aipatuz. Bizpahiru urteren ondoren, kriminologo feministen erreferentziak eskatu nizekion Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bati, ustelkeriari buruzko erreportaje bat prestatzeko. Gizonak posdata lizun bat idatzi zidan, *Puteras*-i erreferentzia egiten ziona.

Eskukatuta sentitu nintzen.

Azken urteotan, Espainiako feministak abolizionista oldarkorrek Wienerren *Sexografías* zein *Puteras* behin eta berriro aipatu dute sareetan, gure diskurtsoak eta gu geu karikaturizatzeko.

Ez ezazue *Puteras* bilatu. Ezabatu berri dut.

Feminismoan asko aztertu da emakume idazleen eta autofikzioaren arteko harreman oparoa. Paradoxa da lehenengo pertsona posizio zaurgarri batetik darabilgunok posizio are zaurgarriagoan bukatzen dugula: jomugan. "Biluzik agertzeko indar handia behar duzu, zeure burua oso landua izan behar duzu", esan zuen Edu Zelaietak *Gara*-n, *Ispilu biluziak* poema bildumaren harira. Bada, zaila da indartsu matentzea plazandre feministak zaren, ohartzen zaren zure idazten duzun zure kontra erabiliko dutela.

Sorgin ehizaren antza handia du egun bizi dugun ofentsiba antifeministak (tamalez, baita feminismo abolizionista

transfoboaren ofentsibak ere). Inkisizioak ez zuen sare sozialik behar, baina egia da plataforma digitalek errazten dutela zelatatzea, jazartzea, lintxatzea, umiliatzea. Trol matxista anonimoei buruz luze idatzi dut, kontuan izan barik gure bizilagunak izan daitezkeela. Tira, lektzioa ikasi nuen Irantzu Varelaren aukokoak ukabildak eman zionean eta, halere, ustekabeen harrapatu nau egunotan herrian bizi dugun erasoaldiak (plazan zein sare sozialetan), nire jardun feministak iturburu duena.

Zutabea idazten hasi naizenean ez dut jakin nola itzuli "*Te expones demasiado*". "Arrisku handiegia hartzen duzu", iradoki dit txiolari batek. Esanguratsua iruditua zait, zuhurtzia falta leporatzen zaigulako erasoak pairatzen ditugun plazandrei.

Edonola ere, esposizioaren beldur naizen honetan, besoan tatuatua daramadan Arantxa Urretabizkaikaren *Bidean ikasia*-ko aipua darabilkit buruan:

"Beldur naiz, baina, halere, aurrera egiten dut. Ez du balio esateak ez dela beldurrik izan behar. Esan behar da baietz, beldur zarela, guztiz, gorputz osoa asaldatzen dizula beldurrak, baina, aldi berean, gauza asko egin daitezkeela beldur eta guzti. Geroztik ez nau beldurrak beldurtzen". ●

Polizia: eredu kontua ote?



**ITZIAR MORENO
MARTÍNEZ**
EUSKAL PRESO
POLITIKOA

Omen, ezkerreko mugimenduok eztabaidatu behar dugu Polizia eredu berriei buruz, iritzi “gotortu” edo “erosoetatik” aldenduz. Gotortzea al da norbere ideiak eta printzipioak defendatzea? Erosoa izan al da inoiz sistemaren aurka borrokatzea? Animatuko naiz, bada, ene iritzia gehitzen auzitan den gai arantzadunari.

Gure herrian tortura, erailketa eta errepresiorik krudel zein zigorgabearenaren ikur badira ere, inork pentsa lezake, “eredu ona” topatzekotan, ez dela zertan halakorik errepikatu. Alta, aipa ditzagun bestelako argudioak.

Polizia: ordena publikoa zaintzea helburu duten estatuko segurtasun-indarrez osatutako erakundea.

Estatua: lurralde mugatuan finkatuta eta botere subiranoz hornituta dagoen unitate politikoa; boterea gauzatzen duten erakundeen multzoa; botere publiko zentrala, botere lokalei kontrajarria.

Polizia estatuari hertsiki lotutako instituzioa da eta, lehena zalantzan jarritz gero, hurrena ere kolokan jartzea logikoa dirudi. Izan ere, Poliziari gabeko herri edo kulturak topatzeko, estatuaren adigai modernoaren aurreko garaietara jo behar dugu. Egun, badira Poliziari gabeko herriak, zapatistak kasu, defentsarako antolatuta badaude ere.

Niretzat, argi, garbi eta oskarbi: ez dago Polizia eredu onik, kartzela eredu onik ez dagoen bezalatsu. Biak ala biak erauzi behar dira. Ez dut uste arazoa denik Polizia eredua, Polizia bera baizik. Pertsona batek beste pertsonen gaineko boterea aitortzen dion uniforme duen bitartean, beti izango du botere hori neurrigabe baliatzeko aukera. Estatuburuen tankeran: afera ez da zein den pertsona edo erakunde politikorik zintzoena botere hori era justu batean kudeatzeko, arazoa boterea bera da. Problema ez da, hortaz, nork agintzen duen, agintea bera baizik. Historiak erakutsi digu, asmorik iraultzaileenak zituztenek ere akatsak (baita gehiegikeria izugarriak ere) egin izan dituztela, behin boterea eskuratuta. Beraz, botere guneak ahalik eta gehien murriztu behar dira, erabakitze muinak kolektibizatuz eta herritarrak instituzioen gainetik boteretuz.

Nork beteko ditu, orduan, polizien zereginak? Tai gabe, hainbat eginkizun komun-zulora bota ditzakegu: manifen/mugen/jendartearen kontrola, errepresio-funtzioa... Herritarrontzat baliagarriak direnak, aldiz, lan bereziak eta zibilak bilakatu daitezke: trafikoaren antolaketa, salbamendua, biktimei laguntza, liskarren bitartekaritza... ea.

Utopikoa? Baliteke. Utopiek, oster, iraultzaileen bidea marrazten dute! ●

Gazteak eta euskara



**LAURA MINTEGI
LAKARRA**
IDAZLEA

Iñaki Galdosek maiatzaren 24an *Berria*-n idatzitako artikularen harira iritzi batzuk irakurri ditut sare sozialetan. Galdosek aldarrikatzen du euskara estandarren beharra eta kexu azaltzen da zenbait hedabidetan euskararen erregistro lokalek hartzen duten presentzia gehiegizkoaz.

Bat etor ninteke esaten dutenekin euskalkien erabilpen demasekoa hedabide ez lokaletan uxatu ditzakeela euskarara hurbiltzen ari direnak, eta euskalkirik “ez duten” euskaldun berriak zokoratuta senti daitezkeela. Baina gehiago arduratzen nau, beste behin, hegoak moztu nahi izatea dabilenari,

ibiltzeko gogo kentzeraino.

Dagoen euskararik onena da egiten dena, ia-ia edonola egiten bada ere. Eta euskararen etsairik handiena da euskara nola, noiz, norekin egin behar den ezarri nahi duen dotrina. Zenbateko kaltea egin zaio euskarari, hobe beharrez!

Zinez uste dut naturaltasuna dela hizkuntzari egin dakioken opari ederrena: natural komunikatu, natural adierazi norberak dakiena, edo ez dakiena.

Zorionez, gazteek ez digute kasu handirik egiten helduoi. Nahi dutena egiten dute, nahi dutenean. Eskerrak. Maiatzaren 21ean Donostian egin zuten bezala. *Merci!* ●

Amaiurtarra



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Aise adituko diezue adin bateko espainolei, zerbaiten larritasuna gutxietsi edo apaletsi nahi dutelarik: “Kuban gehiago galdu zen”, harako 1898 hartako inperio kolonialaren hondarren galera gogoan. Hungariarrek ere, gisako esamoldea omen dute, adiera berberarekin testuinguru berdinean erabiltzen dena: “Mohacs-en gehiago galdu zen”. Ez dakienak jakin dezan, hungariarrek Mohacs-eko batailan galdu zuten independentzia, turkiar otomanoen kontra, XVI. mendean. Gure artean, berriz, are gutxiago gure hizkuntzan, inoiz ez da sortu “Noainen gehiago galdu genuen” edo gisako esamolderik, gure historia tristearen oroigarri.

Zintzoki erranda, berriki samar arte hemen inork ez zuen galeratzat hartzen duela bost mende galdu genuena. XIX. mendean, oroitzapen lauso bat baizik ez zen gelditzen 1512-28ko gertaeretatik, iragan-min mehe-mehe bat gorpuzteko gauza ere ez zena. Horrela, Nafarro(et)an. Gainerako herrialdeetan, ezta hori ere. Oroimena orainean sustraitzen dela erakutsi ziguten Kanpionek eta bere lagunak, gure historiaren atal ahantzi hura argitara ateraz. XX.aren azken ur-

Ez du lan makala
erresuma zaharraren
errautsekin
errepublika berriaren
zimendua eraiki
nahian dabilen tropak.
Zail du,
baina nork jakin

teetatik hona, gaiaren gaineko erauntsia bizi izan dute gure liburu dendetako apalek. Militanteen aitzinetik joan dira historialariak.

2012an, konkistaren 500.enean, aterra zen zalaparta gehien. Iaz, berriz, duela 5 mende Fernández de Velascoren kanoiek Asparrotsen oinezkoekin baino suntsigarriago jokatu zuen COVIDak Noaingo batailaren mendeurreneko os-

pakizunekin. Aurtun, motel hasirik ere, nolabaiteko abiada hartu dute azkenean Amaiurko gazteluaren setioaren ingurukoak oroitarazteko ekitaldiek. Lan hau argitaratu orduko alehungarren erro-mesaldi aberkoia ikusia izanen da Baztango herria. Ezin erran UPNn eta PSNn norainoko kezka duten, baina kontent daude, segur, ibarreko ostalariak. Politika hasten da ekonomiatik.

Ez du lan makala erresuma zaharra-
ren errautsekin errepublika berriaren
zimendua eraiki nahian dabilen tropak.
Zail du, baina nork jakin. Orain-
goz, kapitulukako oroigarri sail honi
esker santutegi plantako bat dugu, leku
apartearen kokatua. Leku bat non santu
laikoei goraintzi egin eta paisaiaz eta
gastronomiaz gozatu. Aberria hasten da
begietatik eta tripatik. Honelako otoizle-
kuean ohi denez, mirariren bat gertatu
da jada. 500. mendeurrenaren kariatara,
etorkizuneko Nafarroaz gogoeta egiteko
deialdia egiten hasi dira zenbait talde.
Zer izan ginen-edo bezain garrantzitsua,
edo garrantzitsuagoa, baita zer izan
behar genukeen-edo pentsatzea. Horren
defentsa egin behar genuke. Defentsa
amaiurtarra, bistan dena. ●



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES



matrikula
irekia



www.uik.eus

ARABAKO BERTSOZALARI TXAPELKETA 2022

FINALA

EKAINAK 11 Larunbata, 17:30ean
GASTEIZ Maria de Maeztu auditorian
(Europa Biltzar Jauregia)



Iñaki
Viñaspre
Simon



Manex
Agirre
Arriolabengoa



Oihane
Perea
Perez de Mendiola



Paula
Amilburu
Izargarai



Peru
Abarrategi
Sarrionandia



Xabi
Igoa
Eriz

Gai-emailea: Aintzane Irazusta Arzallus
Aurkezlea: Arantxa Sobrino Lasa

www.bertsozale.eus/araba - www.bertsosarrerak.eus



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



LOMLOE

Aldaketa dator ikastetxeetara

LOMLOEk dakarren metodologia interdiziplinarra praktikara eramateko gakoak, ikasleek errepikatu ala ez erabakitzeke irizpide polemikoak, filosofia azkenean curriculumean izango duen presentzia, edukietan ikuspegi feminista txertatzeko neurrien eraginkortasuna... aztertu ditugu, Espainiako azken hezkuntza legeak Hego Euskal Herriko ikastetxeetan izango duen eragina neurtu asmoz. Aldaketarako prestatzen ari diren irakasleengana jo dugu iritzi eske.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Espainiako enegarren hezkuntza legea gainean dute Hego Euskal Herriko ikastetxeek, EAEko eta Nafarroako gobernuek egokituta –berez %50eko eskumena dute erkidegoetako gobernuek, curriculumean eragiteko–. PPren LOMCE kritikatu ordezkatuko duen PSOEren LOMLOE honek hari-mutur asko ditu –itunpeko sarearen aldean eskola publikoaren aldeko apusturik ez dagoela, ikasleen segregazioari ez zaiola aurre egiten eta ratioak jaisteko eta irakasleak egonkortzeko neurririk ez duela josten salatzen du adibidez Steilas sindikatuak, nahiz eta gai horietako batzuei erantzun propioa emango dien egosten ari den EAEko Hezkuntza Legeak–. Gu pedagogian eta curriculumean ekarriko dituen aldaketetan zentratuko gara ondorengo lerroetan.



Metodologia aldatu eta proiektuka aritzeko, eduki batzuk albo batera uztea eta curriculuma arintzea ezinbestekoa da”

OLATZ ZUMETA

PROIEKTUKA ETA IKASGAIAK GURUTZATUTA, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN

Datorren ikasturtean martxan jartzeko aldaketa metodologikoa proposatzen du legeak: ikasgaiak antolatu ordez, hainbat ikasgai eta diziplina gurutzatuz gaiak proiektuka lantzea, ikuspegi globalago batetik eta konpetentzietan indarra jarritz. Haur eta Lehen Hezkuntzan bada halako esperientziarik, ez ordea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta adin horietan ere lehenago edo beranduago ikastetxe guztiak proiektuka aritzea da legearen helburua. Bigarren Hezkuntzak duen berezitasuna da irakasle espezialista gehiago dagoela, ikasgai bakoitzak bere irakaslea duela –Lehen Hezkuntzan tutoreak denbora gehiago pasatzen du haurrekin–, eta beraz metodologia aldaketa honek



irakasleen artean beste modu batera koordinatzea eta taldean aritzea eskatzen du, bai proiektuak prestatzeko, baina baita klasea emateko garaian ere, hezitzaileak ez baitu buruan soilik bere ikasgaia izango.

Gurutzatuko diren ikasgaiak bi eremutan banatzen ditu legeak: eremu soziolinguistikoa (Euskara, Gaztelania, Gizarte) eta zientifiko-teknologikoa (Tecnologia, Matematika, Natur Zientziak eta Biologia). Beste kontu bat da ikastetxe bakoitzak nola gauzatu duen proiektua eta nola egingo duen lan eremu horien barruan, edota gurutzaketa horretan ikasgai gehiago sartuko ote dituen –esaterako ikasgai artistikoa eremuetako batean–.

Villabonako Erniobeia Bigarren Hezkuntzako institutuan proiektua aritzeko gogoeta prozesu betean dira eta bide horretan pausoak ematen joateko erronka dute. Olatz Zumeta zuzendariak esan digu aurretik ere proiektu txikiak jorratu izan dituztela han-hemenka, ez dela zerotik hastea, baina bai gaiari sakonago heltzea. Horretarako, hainbat ikastetxetako esperientzia ezagutu dute, tartean proiektua lan egiten hamabi bat urte daramatzan Kataluniako eskola publiko batena. “Positiboa ikusi dugu metodologia horren bidez zeharkako konpetentziei garrantzi handia ematen dietela, ikasleen autonomia eta kritikotasuna lantzeari eta abar, eta aldiz edukiak gutxiago lantzen dituztela. Hori bada kezka bat gurean, ea kapaz izango garen metodologia honenkin lan eginez programatuta ditugun eduki guztiak emateko –dio Zumetak–. Beste era batera esanda: eduki batzuk albo batera uztea eta curriculum arintzea ezinbestekoa da, proiektua aritzeko beste zerbait eskatzen dizulako; eta Jaurlaritzak behintzat esana du curriculum edukiz arinduko duela”.

Proiektua aritzearen funtsa da erronka batzuk planteatu eta ikasleak eurak antolatzen, alternatibak eta irtenbideak bilatzen, gauzak proposatzen... jartzea. “Ikasleak egindako esfortzuari, izan duen ikas-prozesuari arreta gehiago jartzea ere bada xedetako bat”. Positibo baloratzen du Zumetak, baina zailtasun bat ere jarri du mahai gainean: ebaluazioa. “Konpetentziak ebaluatzen formazioa behar dugu, teorizatzenetik harago

“

Bada korrante pedagogiko bat dioena edukiak amaitu behar direla, baina zer pentsatuko dugu edukirik gabe? Heldulekuak behar ditugu, bestela tertuliano bilakatuko ditugu ikasleak”

IÑIGO MARTINEZ



erreminta praktikoak behar ditugu, konpetentziak benetan nola baloratu jakiteko”. Azken finean, legeak dioena dioela, praktikara eramateko baliabideak dira gakoa, zuzendariaren hitzetan: “Heziberri ere hor dago eta ez du aldaketa handirik ekarri, hezkuntza pertsonok egiten dugulako, eta horretarako baliabideak behar ditugu, tartean klaustro egonkorrak bermatzea, irakasleen behin-behinekotasun handiak ez baitu batere laguntzen”.

PENTSATZEA VS. MEMORIZATZEA?

Aipaturiko metodologiaren atzean ere badago LOMLOEk aldarrikatzen duen oinarrietako bat: edukiak baino, eduki horiekin zer egin ikastea da garrantzitsua, eztabaidatzea eta gogoetatzea, eta lehenesten du pentsatzea memorizatzearen gainetik. Olatz Zumetaren ustez, kontua ez da zuritik beltzera pasatzea: “Proiektua aritzean esaten da irakasleak gidari izan behar duela, baina gidariaz gain jakintza batzuk, azalpenak, edukiak... ere transmititu behar dizkie ikasleei, hori ere beharrezkoa delako, eta ez litzateke baten edo bestearen artean aukeratu behar, oreka mantendu baizik. Memorizazioa auzitan jartzen da gaur egun, eta noski ez dela dena memorizazioan zentratu behar, baina eduki batzuk memorizatu beharko dira, oinarri batzuk ere behar ditu ikasleak, bidea egiteko. Aldi berean, ikasleak gogoetatzea eta eztabaidatzea, kritikotasuna lantzea, oso garrantzitsua da, ikasleak bizitzarako prestatzen ari garen heinean”.

Ildo berean mintzatu zaigu Loiu-ko Lauro ikastolan dabilen Iñigo Martinez Filosofia irakaslea, gaiaz galdetu diogunean: “Bada korrante pedagogiko bat dioena edukiak amaitu behar direla, Googlen daudela edukiak eta zertarako ikasi, baina zer pentsatuko dugu edukirik gabe? Memoriak eramaten gaitu ondare bat jasotzera, aurrekoek esan dutena jasotzera, eta lotura egiten du iraganaren, orainaren eta etorkizunaren artean. Pentsatzeko metodoak ongi daude, baina heldulekuak behar ditugu, kontua ez baita soilik iritzia ematea, iritzia horren sendotasunari ere erreparatu beharko genioke, sakondutako iritzia al den, ikertua al den... Bestela tertuliano bilakatuko ditugu ikasleak”.

FILOSOFIAK ZEIN LEKU IZANGO DU CURRICULUM BERRIAN?

Galdera hori egin diogu Iñigo Martinezi. Testuinguruan jarri gaitu lehenik: LOMCEk ezabaturiko Etika eta Filosofiaren Historia bueltatuko zela bozkatu zuten alderdi guztiek Espainiako parlamentuan, baina ez zuen hala jaso LOMLOEren lehen zirriborroak. Protesta eta presio kanpaina baten ondorioz, gauzak aldatzen joan direla dio Martinezek eta azkenean “erdizkako aurrerapausoa” eman duela Espainiako Gobernuak: Filosofia ikasgaia derrigorrezko izango da Batxilergoko bigarren mailan ere – LOMCEekin lehenengo mailan baino ez zen derrigorrezko ikasgaia –, baina PSOEn aurreko hezkuntza legean DBHn derrigorrezko zen Etika ikasgaia ez da bueltatuko eta gainera LOMCEk DBHn hautazko gisa eskaintzen zuen Filosofia ikasgaia zerrendatik desagerrarazi du LOMLOEk. Inportantea da gogoratzea ikasle guztiek ez dutela Batxilergoa egiten.

Kontuak kontu, Espainiako Gobernuaren eragina apalduta geratuko da Hego Euskal Herrian, bai Jaurilaritzak bai Foru Gobernuak erabaki baitute DBHn hautazkoen zerrendan Filosofia ere egon dadila aukeran –Valentziak izan ezik Espainiako Estatuko gainerako erkidegoek egin duten ildo berean–. EAEn, filosofiari lotutako beste ikasgai bat ere eskainiko da hautazkoen artean: Pentsamendu Kritikoa eta Autonomia.

Bestetik, Iñigo Martinezek nabar-

mendu du Balio Zibiko eta Etikoak ikasgaia DBHko maila guztietan ematen zela LOMCEk kendu zuen arte, eta orain DBHko maila bakarrera murriztu dutela eskaintza, “kasik ordutegia betetzeko”. Etika ez da filosofiaren balio-kidea, “baina bada filosofiaren atal bat”, gogoratu du irakasleak. Informazioaren saturazioa bizi dugun garaiotan, informazio hori guztia interpretatzeko eta zalantzan jartzeko gelditzea eta denbora hartzea beharrezkoa dirudi, “eta horretan ere laguntzen du filosofiak”. Ikasgai honek zertarako balio duen argi ez dutenentzat, Martinezen hitz hauek: “‘Normaltasuna’ zalantzan jartzeko eta esnatuago bizitzeko”.

IKASTURTEA ERREPIKATZEKO IRIZPIDEAK AUZITAN

Ikasleek maila errepikatzea benetan salbuespena izan dadin, ikasturtea errazago gaitzetzeko modua ezarri du lege berriak. Gaitzitu gabeko bi ikasgairekin, aurrera egingo du ikasleak zuzenean, eta bi ikasgai baino gehiago baditu gaitzitu gabe, irakasle taldeak erabakiko du zer egin, baina gehienez bitan baino ezingo du mailaren bat errepikatu ikasleak derrigorrezko hezkuntza osoan zehar. Batxilergoan ere, gaitzitu gabeko bi ikasgairekin igaro daiteke gaztea lehenengo mailatik bigarrenera, eta gaitzitu gabeko ikasgai batekin titulua lortu ahal izango du.

Gaur egun ere irakasle klaustroan eztabaidatzen den arren zein ikasle-

egingo duen aurrera eta zeinek ez, errepikatzeiko ikasgai gaitzitu gabeen kopururik ez ezartzeak eta aukera maltzuteak irakasleen bizkar zama gehiegi jarri duela iritzi dio hainbatek. Gainera, Olatz Zumetak zalantza egin du, legea ez ote den kontraesanean erortzen: “Ikasleak konpetentziak barneratu dituela eta bidea egingo duela ikusten baduzu, arraroa da ikasgaia ez gaitzitzea, ez bada kasu oso berezia”.

Espainiako Gobernuak araudia maltzuteko erabakiaren arrazoia da gakoa: hezkuntza orientabideak markatzen

DATU PERTSONALEN BABESA EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena

NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



dituen Ekonomia Lankidetzeta eta Garpenerako Antolakundea osatzen duten 34 herrialdeetatik, Espainia da errepikatzaile gehien dituen estatua –ikasleen %9, gainerako herrialdeen %1,9 batezbestekoaren aldean-. Beraz, nola egin errepikatzaileak gutxitzeko eta eskola porrotaren datuek itxura hobea eman dezaten? Ahal den neurrian ikasleek errepikatzea eragotziz. Ordea, batetik Hego Euskal Herriko errealtatea ez da hori –errepikatze maila txikiagoa da– eta bestetik, eskola porrotari aurre egiteko soluzioak ez luke izan behar beste barik errepikapena eragozte, “atzean” geratzen ari den ikaslea lehenbailehen identifikatu eta behar duen laguntza ematea baizik

Gaiaz sakon jardun genuen *Ikasturtea errepikatzea: Icebergaren tontorra* mahai-inguruan (LARRUN 216) eta ondorio bera azaleratu zuten solaskideek: ikerketen arabera, errepikatzeak ez du akademikoki ondorio onik ekartzen. “Eta normala da, errepikatu eta soluzioa baldin bada berriz ere gauza berbera egitea, modu berberean ikasiz: ezer ez bada aldatzen eta ezintasunak berdinak baldin badira, berbera izango da emaitza”, zioen Pedro José Macho Hezkuntza ikuskariak. Alegia, banakako indartze

Eskola porrotari aurre egiteko soluzioak ez luke izan behar beste barik errepikapena eragozte, “atzean” geratzen ari den ikaslea lehenbailehen identifikatu eta behar duen laguntza ematea baizik

plan hori beharko lukeela errepikatzaileak –LOMLOEk ere hala jasotzen du–, baina berriz ere pareta berarekin egiten dugu talka: baliabiderik gabe alferrik dira hitz ederrak.

Ezin ahaztu, errepikatzea bera gaizki ikusia dagoela, eta horrek pisu handia duela erabaki bat hartzeko garaian. “Berez, errepikatzea ez da larria, beste era batera planteatuko bagenu: lehenengoan ez dugu asmatuko, bigarrenean ere ez eta hirugarrenean lortuko dugu,

horrela goaz zailtasunak gainditzen eta ikaspenak garatzen, baina kontua da gure hezkuntza sisteman eta gizartean estigmatizatutako neurria dela ikasle batek errepikatzea”, zioen Agurtzane Martínez irakasleak, mahai-inguruan. “Zergatik bihurtu da errepikatzea hain eskandalagarria? Porrotaren ideia dago atzean, baina errepikapen horietan ezberdintasunak sartuz trebatzeak ez du zertan txarra izan; ez luke tragedia bat izan behar errepikatzeak”, Iñigo Martiñezek.

CURRICULUM FEMINISTAGOA?

Begirada eurozentrikoa gainditzen duen eta kontakizun historikoan bestelako ikuspegiak txertatzen dituen curriculumak prestatu duela saldu du Espainiako Gobernuak, baina batez ere, curriculum feminista dela LOMLOEk dakarrena. Mugimendu feminista planteatzen du adibidez gaitegian, emakumeak presenteago daude ikasi beharreko izen zerrendetan, eta araudiak besteak beste jasotzen du estereotipoen, indarkeriaren eta jarrera sexisten aurka egiteko betebeharrak, baita hezkuntza administrazioari dagokiola bermatzea ikastetxeetako materialak ez sexistak eta ez diskriminatzaileak izatea. “Orain arteko legeetan zeharka aipatzen zen hori esplizituki idatzita dator eta hori da aldaketa nabarmenena. Genero indarkeria lantzeko premia helburuetan agertzea, esaterako, aurrerapauso gisa hartu behar da, eta mugimendu feministak azken urteetan egin duen lanaren

“ Benetako lanketa feminista egiteko, orduak eskainiko dizkigu lege berriak hezkidetzat arduradunoi? Bestela hankamotz geratuko da eta irakasleen borondatearen menpe segituko du”

BEATRIZ RUBIO



erantzuna da, nolabait –adierazi digu Beatriz Rubio Irungo Toki Alai eskola publikoko Hezkidetza arduradunak–. Hori bai, hezkidetza arloan orain arte egin ez dena ez da izan legeak horretarako aukera eman ez duelako, beraz ikusi beharko da aurrerantzean zerbait aldatzen den”. EAEko II. Hezkidetza Plana bera, ikastetxeetan ezarrita dagoena, LOMLOE baino aurrerago doala gaineratu digu Rubiok.

Orduan, zergatik daude gure eskoletako curriculumak feminista izatetik hain urrun? Aurreko solaskideen ildoan erantzun digu Rubiok: “Baliabideak eskaini behar ditu legeak, helburuak praktikara eraman ahal izateko. Bate-tik, formakuntza behar da hezkidetzan, dekretuak jar dezakeelako estereotipo sexistak apurtu behar direla, baina irakasle batzuk ez dira gai horiek identifikatzeko ere. Bestetik, hezkidetza arduradunari orduak eman behar zaizkio, lan hori egiteko. Gaur egun, ezarrita dago ikastetxe bakoitzean hezkidetza arduradun batek egon behar duela, baina lan horretarako liberatutako ordurik gabe; ni neu hezkidetza arduraduna naiz, baina apenas dudan ordurik irakasleei formakuntza emateko, ikasgai bakoitzeko mintegietan parte hartu eta euren eduki eta ikasgaietan hezkidetza eta genero ikuspegia txertatu dezatela bideratzeko, testuliburuak betaurreko moreekin begiratu eta edukietan emakumeen ikusgaitasuna eta erreferentziak lantzeko... Orduak eskainiko dizkigu lege berriak hezkidetza arduradunoi? Bestela guztiz

hankamotz geratuko da eta irakasleen borondatearen menpe jarraituko du gai honek”.

Bestalde, datuek diote Batxilergoan mutilek batik bat Zientzien modalitatea aukeratzen dutela eta neskek Giza Zientzien eta Gizarte Zientzien modalitateekin lotura dutenak. Ere mu-nologikoan ere nabarmena da genero-arrakala. Bada, paperean, beste erronka interesgarri bat dakar LOMLOEk: emakume gutxi dagoen adarretan neska gehiago egon dadin lortzea. Hori nola egiten den galdetu diogu Beatriz Rubiori, eta kontatu digu beraien ikastetxean hainbat esperientzia martxan dituztela, eta denek abiapuntu funtsezkoa dutela: zientzietako ikasgaietako irakasleak aliatu dira hezkidetzan aurrerapausoak emateko bidean. Aurten, adibidez, matematikako azterketa amaitzean espero zuten nota idazteko eskatu diete ikasleei eta Excela osatu du irakasleak, esperotako eta lortutako notarekin. “Frogatu nahi dugu neskek konpententzia matematikoari lotuta beren buruaz duten irudia eta benetako gaitasuna ez datoze-la bat, mutilek beren burua hobeto ikusi ohi dutelako neskek baino, eta erre-alitateak dio neskek mutilek baino nota altuagoak ateratzen dituztela”. Neskak zientzia arloko bilera, mintegi, hitzaldi eta tailerretara eramaten dituzte; hezkidetza batzordeak urtero proiektu bat antolatzen du zientzia, teknologia, informatika eta matematika mintegiekin elkarlanean; ikasleekin aztertzen dute gizartean genero eraikuntza nola gauza-

tzen den eta horrek neska-mutilak nola baldintzatzen dituen ikasketak eta lan-bideak aukeratzeko garaian...

ERLIJIOA, DERRIGORREZ ESKAINI BEHARREKO IKASGAIA

PSOEren legeak hezkuntza laikoaren bidean urratsak emango zituela uste zutenei zaplaztekoa eman die LOMLOEk: ikastetxeek derrigorrez eskaini behar dute Erlijioa, hautazko ikasgaia izango da ikasleentzat, eta notarako balioko du.

Gainerakoan, ikasgaiei lotuta izan da eztabaidarik. EAEko curriculumean DBH 3n Historia ikasgaia desagerrarazi dutela-eta, haserre agertu da hainbat irakasle, aurreko ikasturteko historia kontakizunari segida ez zaiola emango eta ikasleen ezagutza herren geratuko dela argudiatuta. Eta aldaketa aipagarrien artean, hautazko ikasgaien eskaintza zabaldu egingo da bai DBHn (Atzerriko bigarren hizkuntza, Garapen pertsonal eta sozialari aplikatutako Filosofia, Digitalizazioa, Teknologia, Kultura zientifikoa, Osasun fisikoa eta emozionala...), bai Batxilergoan (Euskal Herriko Historia, Anatomia aplikatua, Argazkilaritza, Pintura, Laborategiko teknikak, Antropologia soziala, Atzerriko hizkuntzan ahozko komunikazioa...). Batxilergoan, gainera, gaur egungo hiru adarren ordeztu bost adar izango dituzte ikasleek aukeratzeko: Zientzia eta Teknologia, Giza eta Gizarte Zientziak, Arte Plastikoak, Musika eta Arte Eszenikoak, eta Batxilergo Orokorra (arlo humanistikoak eta zientifikoak barne hartuko dituenena). ●



ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Euskararen errepublika irudikatzeko eguna

Hirugarren aldikoz hartu du plaza Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azokak, euskara hutsean ekoizturiko liburu eta diskoei leku osoa eskainiz. Milako bat lagun ibili dira azokan eta antolatzaileak biziki kontent agertu dira. Bisitariei, idazleei zein argitaletxe eta diskoetxeetako arduradunei azokaz galdetuz gero, horra gehienik ateratzen diren hitzak: euskara, aniztasuna, hurbiltasuna eta topagunea. Funtsean, erreportajea idazteko ardura zeukanak ere lau hitz horien inguruan osatu du kontakizuna.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  DANI BLANCO

“ ”

***Autoreak dira gure
indarra, autoreen
kemenak du
liburuaren hedapena
eta interesa egiten.***

***Autorea da gure
arma bakarra”***

Lucien Etxezaharreta

Ongi etorri euskararen errepublikara” banderola petik pasa behar zen Ziburuko III. Euskal Liburu eta Disko Azokara sartzeko. Antolatzaile diren Baltsan elkartearen eta ARGIAren helburuetan hori ere badelako: urtean egun bakar batez bada ere, euskara hutsean bizitzeko parada ukaitea. Ipar Euskal Herrikoak arras ongi daki ofizialtasunik gabeko gure hizkuntzak zein leku duen plazan eta euskaraz bizi nahi duenak zer nolako diglosia bortitza pairatu behar izaten duen egunerokoan –batez ere Lapurdi kostalde honetan–. Horregatik du bertaratu ia orok eskertzen, euskararen herrian natural eta nabarmendu gabekoa izan behar lukeena: zer goxoa eta ederra den euskara hutsean Ziburuko plaza.

Euskara hutsean egun bat... eta biharamunak errazagoak bihurtzeko erremintak: euskarazko liburuak eta

diskoak. Urtez urte handituz doa bertaraten diren argitaletxe eta diskoetxeen kopurua: 2020an 16 argitaletxeekin hasi eta 33 ziren aurretik. Musikagintza ere ederki ordezkaturia izan da hirugarren edizio honetan –Saroia Records, Alkimia, Bagabiga, Bidehuts, Kalapita,...– eta

artista andana egon da zaleekin hizketan. “Hemen sortu den giroa oso bat dator musika eta kultura ulertzeko dugun moduarekin”, zioen Balio Dute musikari kolektiboko Eli Berazak.

Milako bat bisitari izan ditu azokak eta antolatzaileak pozik agertu dira: “Jendea hurbildu da, inguruko herrietatik eta urrunagotik ere. Irribarre handi bat agertu da jendeen aurpegietan”, zioen egunaren bukaeran Maddi Zubeldia Baltsaneko kideak. ARGIAko Bego Zuzak ere “oso ondo” baloratu zuen azoka: “Arnasgune bat da, Ipar Euskal Herriko erreferentziatzeko topagune bihurtzen ari gara urtez urte”.

“ANIZTASUNA” BEGI-BISTAKOA

Euskal sorkuntzaren “aniztasunaren” erakusleio da Ziburuko hitzordua Lucien Etxezaharreta Maiatz argitaletxeko idazlearen arabera: “Euskarari lehen-tasuna emanez, gure ahulezia indar



Janbattit Dirassar omendu du aurtengo azokak (behean eskuineko argazkian).

bilakarazten dugu. Liburutegi zabala daukagu, eta hori ez daukute kenduko". 1980ko hamarkadan sorturiko Ipar Euskal Herriko argitaletxea da Maiatz eta langilerik gabe, kideen inplikazioari esker dabil aitzina: "Zorrak pagatzeko doia saltzen dugu; ez dugu langilerik, horrek salbatzen gaitu. Autoreak dira gure indarra, autoreen kemenak du liburuaren hedapena eta interesa egiten. Autorea da gure arma bakarra". Bide horretan, Ziburuko Azoka bada garrantzi handiko lekua: idazle andana egon dira Maiatzaren mahaiaren atzealdean liburuak gomendatzen, aurkezten eta saltzen. Ipar Euskal Herrian egotearen garrantzia eta beharra nabarmentzen ditu Erein argitaletxeko Edurne Durandegik. "Elkargune polita" dela dio, beste argitaletxekoekin solastatzeko aukera eskaintzen diena. Egunean zehar haur anitz hurbildu zaizkio eta aritu dira zuzenean liburuak hartzen eta irakurtzen, helduok daukagun zuhurtzia oraindik

ezezagun dutela: "Oso polita da ikustea nola inguratzen diren, kolore edo marrazkiengatik gerturatzen dira eta liburuak irekitzen dituzte".

Umeak nagusi izan dira Maddi Zubeldia eta Bernadette Lurok goizean eskainitako *Amalurrak pausa behar du* kantu, txotxongilo eta ipuin sorkuntzan. Urtero lez, plazatik metro batzuetara den iturri zaharrea zuten hitzordua –ume bat baldin badabil erreportajea irakurtzen, jakin dezala datorren urtean ere iturri zaharra izanen duela bere adineko lagunak egiteko lekua-. Zer eta nola, ezin erran, baina bai, hor ukanen dute topagunea: Zubeldiak gustuko duen publikoa delako haurrena, eta adin ttikikoei euskara, plazera eta irudimena juntatzen dituen une bat eskaintzea ezinbestekotzat daukalako.

TOPAGUNE ESTIMATUA

Lekua osorik euskal ekoizpenari bideratuz gero, begi-bistan gelditzen zaizkigu daukagun uztza eta aberastasuna. "Ikus-

garritasuna gure mundutxoari emate hori" eskertu du Hartzea Lopez Arana Gatzain argitaletxeko idazleak. Fun-tsean, horregatik zen Urruñatik bertaratua Maryse. Ziburuko mediatekako arduraduna da eta denbora hartuta egin du itzulua, azken berritasunak hurbilagozik deskubrituz eta apunteak hartuz, biharamunean bertan mediatekarako apalak aberasteko asmoarekin. Berdin-berdin zebilen Nora ere, Miarritzeko mediatekako langilea bera.

Ziburuko azoka urteroko hitzordu bihurtzen ari da batzuentzat. Anitz ziren, aurreko edizioak ederki pasaturik, berriz ere hurbilduak. Bertsoak, antzerkia, kontzertuñoak, haurrentzako ikusgarria zein liburu aurkezpenak; badelako azokaren inguruan eskaintza kultural oparoa, hots, eguna bertan pasatzeko mamia.

Beste batzuk lehen aldia zuten. Horien artean dugu Baigorriko Amaia: "Eskertzen da, Ipar Euskal Herrian ez dugulako horrelako leku anitz. Euskal kulturin-



Goian ezkerrean, iturri zaharraren inguruan egin zen haurren ikusgarria. Behean eskuinean, bertso zirriborroka.

tzaren alde doan hitzordu oro da ongi etorria". Estimatu du tamaina: "Durango *mini-mini* bat" dela dio, jendearekin bi ele egiteko aukera eskaintzen diona. Hori horrela da, eta oraingoak edo aspaldikoak, lagunak kausitzeko lekua da azoka.

"Ezagutza zaharrak" topatu ditu bere aldetik Jokin Urain idazleak, "euskararen mundu honetako lagunak ezagutzeko" eguna ere izan duelarik. *Txomin, aurre-ra bolie!* liburua aurkezten egon da, eta aurkezpenera publikoa hurbildu izana eskertu du: "Harrera ona izan da, azken aurkezpenera zen gurea eta hala ere bazen jende multzoa. Meritu handia da jendearena, ez autorearena". Ziburuko plaza aspaldian ezagutzen du, hain zuzen, errefuxiatu egon zelako 1983tik 1986ra Donibane Lohizunen: "Ziburuko plaza bazen biltzeko puntu bat, baina garaian ezin zitekeen imajinatu gaur egungo hau". Inpresio "oso-oso onarekin" itzuli da etxera.

Urainen gisara, Asel Luzarraga, Lizar Begoña, Idoia Santamaria, Koldo Izagirre, Garluk eta Dani Fano hirukotea, baita Garbiñe Larrea ere egon ziren haien azken obrak aurkezten.

“ ”
**Hemen sortu den
 giroa oso bat dator
 musika eta kultura
 ulertzeko dugun
 moduarekin”**

Eli Beraza

DIRASSAR OMENDUAK “L’ANTI-BASQUE” GOGORA

Euskarazko kazetaritza lanarentzat eta literaturan utzitako lau liburuentzat (*Hegiko Bordatik* (1995), *Bihotzeko mina* (1997), *Bele xuriak* (2013), *Herria irakurtuz, 100 lekukotasun* (2018)) omendu zuten antolatzaileek Jamattitt Dirassar, aspaldian Ziburun bizi den hazpandarra. Saria jasotzerakoan ez zuen hitza okupatu nahi izan, arrazoitzat emanik be-

launaldi gazteari, hots, ondoan zeukan Amaier Epher idazle gazteari lekua uzteko xedea. Baina, hala ere, ezin isilik egon; iraganeko mina ezin izan zuen gorde: “Bi hitz erranen ditut, eta frantsesez erranen ditut, ez baineakien nola itzuli... eta ez itzuli nahi ere, hitz itsusia baita! Hitz hori *Anti* da: *Anti-basque*. Haurra ginela-rik eskolan jasan duguna da *Anti-basque*. Debekatzen ziguten gain-gainetik euskaraz hitz bat erratea. Behar da oroitarazi nondik ibiliak garen, nondik ibilaraziak gaituzten. Euskara arrunt debekatua baitzen eskolan; hitz bakarria erraten bagenuen euskaraz, zigortuak ginen. Barkatu bi hitz frantsesez erran izana, baina ez nituen euskarara itzuli nahi”.

Euskaldunok pairaturiko krudelkeria horren oroitzapenak barrenak inarrosirik, momentuan nagusituriko harrotasun eta indarrari lotu eta txalo zaparradaz eskertu zuten idazlea publikoan zeuden lagun, senide, kulturzale eta ziburutarrek. Igor Elortza eta Miren Artetxe bertsolariek, baita Axi eta Unai Gaztelumendi marrazkilariek ere, ederki laudatu zuten Ziburuko hazpandarra,



Hainbat liburu aurkeztu ziren egunean zehar. Adibidez, argazkietan ageri diren Lizar Begoña eta Asel Luzarraga.

ondotik zegoen zirriborroka bertso eta marrazki nahasketaren baitan.

PLAZAN EGON NAHIA

Ziburuko plazak badu arima eta ez da du-darik *plus* bat ematen diola azokari. Bertan egon nahi dute antolatzaileek, plaza inguratzen duten eraikuntzek hedapena mugatzen badiote ere. “Durango *mini-mini*” izaten segituko du beraz Ziburukoak. Oroz gainetik, euskarak plazan egon behar due-lako, herriaren bihotzean. “Zuei denei esker gure azoka zuhaitz baten gisan urtez urte Ziburun sustraitzen ari da. Bere enborra oinarri sendo bilakatzen ari da. Adarrak ugarituz eta zabalduz doaz programazio

“ ”

*Jendea hurbildu da,
inguruko herrietatik
eta urrunagotik ere.
Irribarre handi bat
agertu da jendeen
aurpegietan”*

Maddi Zubeldia

aberatsagoa eta mamitsuagoa eskainiz”, zioen Maialen Tapiak irekitze ekitaldian. Segi dezala hazten zuhaitzak, oihana gor-detzen duen zuhaitza izatetik oihan bihur-tzeraino.

Azoka bukatu orduko kazkabarrak hartu zuen plaza, bertan zeudenak inguruko ta-bernetara bideratuz –eta *azkena* ezizendun tragoa hartuta eguna luzatzeko estakuru ezin hobe eskainiz–. Bittor taberna xarma-garrian instalatu zen Ni Banna folk taldea, ostatu izkinean, eta irlandar musikaren doi-nu artean gelditu ziren etxeratzeko gogorik ez zeukaten idazle, irakurle, antolatzaile eta argitaletxeetako kide zenbait. Gustura, euskararen errepublika ospatzen. ●

BABESLEA:



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

**hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...**

arnasa GARA, EUSKARAZ GARA!

“ ”

Hedabideen jabetza-egiturak baldintzatzen du informatzeko modua

Kerem Schamberger

Oin bat akademian eta beste bat aktibismo politikoan dituela bizi da Kerem Schamberger (Munich, 1986), alde batetik hedabideen jarduna modu kritikoan aztertzen; eta bestetik, mundu osoko gatazka politikoetan inplikaturik, kurduen askapen mugimenduari arreta berezia eskainiz. Alemaniako DKP alderdi komunistako kide ohia, Die Linkeren zerrendetan aurkeztu zen iaz Munich hegoaldeko hauteskunde federaletan. Bere posizio politikoagatik jazarpena ere ezagutu du. Besteak beste, 2016an zerbitzu sekretuek eragotzi nahi izan zuten Municheko Ludwig Maximilian unibertsitateak lanpostu bat eman ziezaion, komunistak zela argudiatuta. Aurtengo maiatzean KriKoWi sareak Vienan antolatu duen “Jabetza, hedabideak, publikoa” konferentziaren harira hitz egin du ARGIArekin.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  PERU IPARRAGIRRE

Sistematik sarera: hedabideak, politika eta kazetaritza Kurdistanen liburuak argitaratu berri duzu alemanez. KriKoWi-k antolatutako konferentzian ARGIAri buruzko azalpenak entzun ondoren, antzekotasunak sumatu dituzu medio kurduen eta euskaldunen artean. Zertan dira antzeko?
Bai hedabide euskaldunak bai kurduak

zapalduta dauden herriek sortuak dira, haien kultura eta hizkuntza zapalduta dituzten jendeek sortuak. Beraz, kazetaritza kurdueraz egitea edo euskaraz egitea, beti da erresistentzia forma bat zapalkuntzaren eta asimilazioaren kontra. Eta horrek dakar, bai kazetari kurduak, bai euskaldunak, nire ustez behintzat, beti ikusten dutela beren burua pertsona politiko gisa. Kazetaritza egiten ari

dira, ez bakarrik kazetari izan nahi dutelako modu burges batean, baizik eta lan hori ikusten dutelako erresistentziarako eta kritikarako aukera bezala. Noski, kazetaritzaren balioak eta printzipioak erabiltzen dituzte; baina era berean, oso lotuta daude zapaldutako jendearen identitateari. Horretan, adibidez, antzekotasunak ikusten ditut. Beste asko ere egon daitezke: maila altuko estatu-jazarpena jasan dute eta jasaten dute hedabide euskaldunek eta kurduak. Kurdistanen hedabideak legez kanpo uzten dituzte ia astero, kazetarien etxeetan sartzen dira, kartzelan sartzen dituzte, lizentziak kentzen dizkiete argitaratzea eragozteko, webguneak blokatzen dizkie estatuak... Eta zuek hitz egin duzue “euskal kazetaritzaren egun beltzaz”, zein urtetako otsailean izan zen?

... 2003koan [Euskaldunon Egunkaria-ren itxieraz hitz egin zuen ARGIAk konferentzian].

Hori da: zuek badaukazue euskal kazetaritzaren egun beltza. Kurduak ere badute beraia. Baina hala ere, lehen esan bezala, erresistentzia forma bat izaten jarraitzen du horrelakoen aurrean esateak: “Ez, euskal kazetaria naiz; ez, kazetari kurdua naiz, eta nire hizkuntzan idazten jarraituko dut, nire ideia politikoei buruz idazten jarraituko dut”.

Zure familiaren parte bat jatorri turkiarrekoa izanda, nola iritsi zinen kurduetako elkartasun politikora?

Hasteko, nire burua komunistatzat dut eta komunista bezala ez daukat aberririk, beste ezer baino lehen internazionalista naiz. Horregatik naiz solidarioa mundu osoko herri zapalduetara. Ez bakarrik kurduetara, euskaldunetara ere bai –han izandakoa naiz–; edo mendebaldeko sahara-rrarekin, Fronte Polisarioko jendearekin; baita palestinarrekin ere, haiek ere zapaldua baitaude Israelen aldetik. Internazionalismoa nire identitate politikoaren osagai zentraletako bat da. Era berean, nire familia turkiarra da. Herriarren %30-40

kurduak izateagatik zapalduta dagoen herrialde batetik dator. Eta uste dut zapaltzaileen herritik datorren norbaiten eginbeharra dela zapalduak daudenekin elkartasuna adieraztea. Azkenik, bereziki interesatuta nago kurduen askapen mugimenduan, politikoki ezkerrekoa eta sozialista den mugimendua delako, gai izan dena aurrera egiteko eta bere ideia politikoak garatzeko 1989ko amilte handiaren ondoren [Berlingo Harresiaren erori zen urte hartan]. Garai hartan nazio askapeneko mugimendu asko krisian sartu ziren eta kurduen askapen mugimendua ere bai, baina gai izan ziren beren burua berrasmatzeko eta eraikitze ideologia

bat, nik XXI. mendeko sozialismotzat daukadana: konfederalismo demokratikoa, kontseilu bidezko demokrazia, ekologia eta bereziki emakumeen eskubideak, feminismoaren bidez. Ikuspegi politikitik ere oso interesgarria da kurduen mugimenduari erreparatzea.

“ ”

Kazetari kurduak eta euskaldunek beti ikusten duzue zuen burua pertsona politiko gisa

Elkartasun hori dela-eta, arazoak izan dituzu Alemanian: besteak beste, isunak jaso dituzu manifestazioetan Kurdistango Herriarren Babeserako Unitateen (YPG eta YPJ) banderak erakusteagatik. Batzuetan askapen nazionalako mugimenduak problema lokal gisa aurkezten dituzte; Alemanian horrelako jazarpena jasateak erakusten du arazoaren dimentsio globala?

Bai, argi eta garbi. Kurduen askapen mugimendua ez da borroka nazionalista, mundu mailako borroka baizik, elkartasunaren, berdintasunaren eta emantzipazioaren alde. Horregatik NATOk kideak –ez bakarrik Turkia, baizik eta Alemania eta beste zenbait Europako herrialde–, borrokatzen dira mota horretako ideien kontra, ez daitezen mundu osoan zabaltzen. Hori eragozten saiatzen dira. Eta Alemania lehen lerroan dago borroka horretan: historiari erreparatzen badiotzu, urte luzetako kolaborazioa izan du Turkiako estatuarekin. Bi aldeek lortzen dituzte onurak harreman horretatik, bereziki alor ekonomikoan, baina baita politikoa ere. 1993an Alemaniak PKK (Kurdistango Langileen Alderdi) debekatu zuen, Turkiako estatuak egiten zuen terrorismoaren definizioa bere eginez. Orduz geroztik, kurduen askapen mugimenduetarekin elkartasuna adierazteko modu ugari jazartzen dituzte Alemanian. Adibide bat aipatu duzu: YPG eta YPJren banderak erakustea legez kanporatu nahi izan zuten, nahiz eta azkenean ez zuten lortu. Baina hori baino lehen, behin baino gehiagotan eraman ninduten auzitegi- etara; eta polizia nire etxean sartu zen



goiz batez, nire ordenagailua, telefonoa eta abar eraman zituzten... Eta Alemaniako zerbitzu sekretuen begiradapean nago. Ez ni bakarrik, noski, beste burkide kurdu asko ere bai; orokorrean elkartasun-taldeetan parte hartzen duen jende asko. Gainera, Municheko unibertsitatean lan egiteko aukera izan nuenean, zerbitzu sekretuek esku hartu zuten eta unibertsitateari esan zioten: "Ezin diozue Kerem bezalako norbaiti lanik eman, Kerem komunista da eta Kurdistango askapen mugimendutik gertu dabil. Gure konstituzioaren etsaia da". Marko horretan kokatzen dute gaia. Borroka luzea izan zen, sei hilabete iraun zuen, baina elkartasun publikoa hain handia izan zen, azkenean unibertsitateak lana eman behar izan zidala.

Auzi hori dela-eta ezagutu zintugun askok, nazioarteko prentsan ere oihartzuna izan zuen. Deigarria da alor akademikoan ere zerbitzu sekretuek horrela esku hartzea.

Bai, hala da. Berez nire burua bi alorren arteko nahasketa gisa ikusten dut: aktibista eta akademikoa. Hori ez da Alemaniako unibertsitateetan oso ohikoa, baina nik uste dut oso inportantea dela mugimendu sozialei konektatuta egotea; eta aldi berean unibertsitatean lan egitea, borroka horiei babesa emateko ikuspuntu akademikotik.

Unibertsitatea ere borroka-eremutat duzu beraz?

Bai, noski. Estatu kapitalistaren hegemonia ideologikoa, besteak beste, unibertsitatean ekoizten da. Vienako Ekonomia Unibertsitatean ari gara hizketan eta pentsamendu neoliberal asko hemen bertan ekoizten da. Horren aurka erresistentzia egin behar da, bai kanpotik, baina baita barrutik ere. Horregatik sortu genuen Komunikazioaren Ikerketa Kritikorako Sarea (KriKoWi), komunikazio-zientzien eremua kritikoago bihurtu nahi genuelako gaur egungo gure gizartea egituratzen duten kapitalismoarekiko, patriarkatuarekiko eta zapalkuntza mota guztiekiko. Eta noski, estatuak hori ere eragotzi nahi du, bere ideiekin eta sinesmenekin bat egiten duen gizartea nahi duelako.

Hedabideen jabetzari buruz asko hitz egin da Vienako jardunaldi hauetan. Ez da sarritan jorratzen den gaia. Uste duzu gai horretaz antzera pentsatzen duten Europako hedabideak elkartzeak lagun



dezakeela alor horretako debatea beste maila batera eramaten?

Baietz esango nuke. Orokorrean, komunikazio-ikasketetan eta hedabideen barruan, jabetzaren auzia angelu itsu moduko bat da, badirudi inork ez daukala gogoan. Baina marxista bezala, uste dut jabetzak egituratzen duela gizartea. Eta hedabideen jabetza-egiturak baldintzatzen du nola egiten den kazetaritza, nola kontatzen diren gauzak. Horregatik da oso garrantzitsua gai hau buruan edukitzea eta modu kritiko batean eztabaidatzea. Horregatik gonbidatu dugu ARGIA, besteak beste: batetik, zuen kasua esplikatzeko; baina bestetik, elkartu zaitezten, pertsonalki elkar ezagutu dezazuen eta harremanetan egon zaitezten. Uste dut pentsatu behar dugula hedabideen jabetza-eredu desberdinei buruz. ARGIA oso eredu interesgarria da, izan ere, kapitalismoaren barruan utopia bat eraiki nahi duzuela iruditzen zait, haustura txiki bat egitura kapitalisten barruan. Erabat babesten dudana zerbait da.

Jardunaldietan ezkerreko hedabideekiko ikuspegi eszeptikoak ere agertu dira, nolanahi ere. Baricada hedabideko Boyan Stanislavskik aipatu du "jeneral asko" ikusten dituela -pertsona bakarreko edo biko proiektu komunikatibo gehiegi-, eta aldiz "soldadu" gutxiegi. Zer iritzi duzu?

Beharbada deskribapen oso militarista da [barre egin du], baina uste dut denok ulertu dugula zer esan nahi zuen. Nire utopia izango litzateke, beharbada maila europarrean hasita, ezkerreko Google News-en antzeko zerbait. Zeren ezkerre-

“ ”

**Alemaniko
zerbitzu sekretuen
begiradapean gaude
ni eta beste
burkide kurdu asko**

koak edo aurrerakoiak diren hedabide asko dago Alemanian, Austrian, Euskal Herrian, Espainian, Frantzia eta abar, oso kazetaritza ona egiten gainera, gauzak modu kritikoan aztertuz maila politikoan, ekonomikoan... Baina oso jende gutxi du horren berri. Zuk eduki dezakezu 20.000 laguneko irakurlegoa, besteak 10.000koa... Eta testuinguru horretan, nik irudikatzen dut ezkerreko hedabideen bilatzaile bat, zeinean medio horiek guztiek beren edukiak erakutsiko lituzketen; eta zuk atxilotetegi buruzko berri bat bilatzen baduzu, edo protesta ekologistek buruzko bat, Europa osoan gai horien inguruan dauden mugimenduei buruzko albisteak ikusi ahal izatea. Hasiera bat izango litzateke. Nola finantzatu pentsatu beharko litzateke noski; eta artikuluen itzulpenak egitea ezinbestekoa litzateke, nik ezin baitut euskaraz irakurri, zuk ezin duzu turkieraz irakurri... Baina ezkerreko hedabideen sare hori imajinatzen dut, jakinda diferentzia politikoak ere egongo direla, baina hori da gaur egungo Europako ezkerren egoera, beraz, horren gainean lan egin behar dugu. ●

Migratzaileek mugan bizi dutena bertatik bertara ezagutzen

Azken hilabeteotan ikastetxe ugari gerturatu dira Irunera, bertako Harrera Sarearen laguntzaz bidean diren migratzaileen errealitatea ezagutu asmoz. Ikasleei inpaktu handiena sortzen diena poliziak hartua duen muga bera dela kontatu digute Irungo Harrera Saretik.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Iraila hasieran eraso homofobia egin ziotela salatu du Gasteizko gazte batek, eta egun berean beste eraso bat jazo zen Ibarra. Azkenaldian ugari dira ezagutzera ematen diren LGBTI kolektiboaren aurkako erasoak, eta zenbait adituk sektore tradizionalaren erreakzioztat jotzen dute.

Ikastetxeetan aspalditik dago presente Irungo Harrera Sarea, ikasleei migratzaileen errealitateaz hitz egitera joaten urteak baitaramatzate, baina ikasturte honetan bestelako proposamena jaso zuten Hernaniko institututik: Irunera bertaratu nahi zuten ikasle-irakasleek. Aurretik, lanketa egina zuten, tartean Hernaniko Amher elkartearekin, eta inportantea iruditu zaio Oihana Galardi Irungo Harrera Sareko kideari, "beldur apur bat ematen zigulako hau nolabaiteko atrakzio-parke bihurtzea, 'goazen migratzaileak ikustera'". Hori hala ez izatea zaintzen du Sareak.

Hernaniko ikasleekin, "saiatu ginen azaleratzen migratzaileen egoera, nola etortzen diren eta zer suposatzen duen Irunera iristea. Batxilergoko ikasleak ziren eta esan genien euren adineko jendea ere ailegatzeko dela, hein batean egoera horretan jarri zitezene". Irungo tren geltokira hurbildu eta ikasleak migratzaileen azalean ipini zituzten: "Non zaudete eta zein dira aurrera egiteko dituzuen tresnak?". Adibidez, nabar-



Irun eta Hendaia arteko zubia (muga) da ikasleek bisitatzen duten lekuetako bat.

HERNANI BHI

*Azal iluna duen ikasle
batek berak bakarrik
gurutzuatu zuen muga,
eta dokumentazioa
eskatu zion Poliziak,
ez ordea atzetik
joan ziren gainerako
ikasleei*

mendu zuten mugikorrak zeinen inportanteak diren ibilbide honetan, "ezjakintasunetik maiz egiten den komentario mingarria baita 'begira, mugikorrak dituzte, migratzaile hauek ez dira hain po-break'", dio Galardik.


Harrera Sarearen beste borroka bat ere helarazi zieten ikasleei: bidean diren migratzaileek gaua pasatzeko aterpetxeetan jende bat kalean uzten dutela, baldintzak betetzen ez dituztela argudiatuta. "Profil batzuk deskribatu genizkien eta galdetu genien: zuen ustez zein hartuko dute eta zein ez aterpetxean?".

MUGAN HESIAK, POLIZIA ETA IDENTIFIKATUTAKO IKASLEAK

Hernaniko ikasleekin egin moduan jardun dute ondoren etorri diren ikastetxeekin ere, eta lau ordu inguruko bisitan Frantziako eta Espainiako Estatuaren arteko muga bisitatzen joaten diren unea izaten da ikasleei inpaktu eta arreta gehien eragiten diena, Oihana Galardiaren esanetan. "Gazteek adibidez hesiak mugitu zituzten eta poliziaren jarrera oldarkorrek harritu zituen, jendarmeei oihu egin ziztelako hesiak astintzeagatik". Talderen batekin egindako dinamika ere aipatu digu Galardik: azal iluna duen ikasle batek berak bakarrik gurutzuatu zuen muga, eta dokumentazioa eskatu zion Frantziako Poliziak, ez ordea atzetik joan ziren gainerako ikasleei.

Irun, Hendaia, Bera, Baiona, Bilbo eta Iruñea aldeko ikasleak izan dituzte hila-beteotan, baita Deustun solidaritatearen kriminalizazioaz masterra egiten ari diren ikasleena ere. Halere, bisita hauek ez daude Harrera Sarearen programan, bai ordea ikastetxeetara hurbiltzea. El-karrizketa egin diogun egunean bertan, Irungo Toki Alai eskolara doa Galardi, migratzaileen ertz ugarietako ikasleekin solastatzera. "Gaurkoa berezia da gainera, ikasleek UNESCOren 'Emaidazu bizitza minutu bat' lehiaketan saria irabazi dutelako eta erabaki dutelako sariaren dirua Irungo Harrera Sareari ematea". ●

Obninsk, lehenengo zentral nuklear “baketsua”



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Obninsk (Sobietar Batasuna), 1954ko ekainaren 27a. Moskutik 110 kilometrora eraiki berri zuten zentral nuklearra sarera konektatu zuten lehenengoz eta, hala, energia industrialki ekoizten zuen lehen erreaktore nuklearra izan zen.

2002ko apirilaren 29ra arte egon zen martxan, arrakastaz, eta urte horietan guztietan ez zen istripurik izan erreaktore bakarreko plantan. Baina esan beharra dago erreaktoreak oso eskala txikian ekoizten zuela energia eta, gainera, soilik lau urte eman zituela sare publiko edo komertzialera konektatuta; 1959az geroztik, isotopoak ekoizteko eta ikerketarako erabili zuten Obninskeko erreaktorea.

1951ko urtarrilaren lehenean hasi ziren erreaktorea eraikitzen. Urte gutxitan izugarritzko garapen teknologikoa lortu zuten zientzia atomikoa energia ekoizpenerako erabili ahal izateko, eta ez soilik Sobietar Batasunean. Gerra Hotza piztu berri zen eta AEBek ez zuten atzean geratu nahi maila askotan jokatzen ari zen gatazka hartan. 1949an AEBetako Energia Atomikoko Batzordeak orube zabal bat erosi zuen Idahan, eta bertan erreaktoreak probatzeko estazio bat eraiki. 1953rako prest zeukaten STR Mark I erreaktorea. Eta, hala ere, sobietarrek irabazi zieten lehia.

Gerra Hotz teknologikoaren gudu



ROS ATOM

1954ko ekainean Obninskeko erreaktore nuklearra sarera konektatu zuten eta, horrenbestez, munduko lehen zentral nuklear zibila martxan jarri zuten.

hori irabazteko osagai militarra funtsezkoa izan zen, edo hobe esanda, osagai militarra baztertu izana. AEBetako programaren helburua gerraontziak eta itsaspekoak energiaz hornitzea zen, eta sobietarrek, aldiz, behar zibilak asetzeko erabiliko zuten. Zalantzarik ez dago erabakia kontzienteki hartu zutela: Ob-

ninskeko zentralari *Atom Mirnyi* edo “atomo baketsua” izenordea jarri zioten.

Atomo hori funtsezko mugarri izan zen zentral nuklear zibilen garapenean, baina bakeari ez zion ekarpen handirik egin; gerra eta energia inoiz baino estuago lotuta egon dira orduz geroztik, eta ez soilik Mosku inguruan. ●



CULTURA COLECTIVA

Hortzetako harribitxien moda

Rosalía, Madonna, Justin Bieber... geroz eta gehiago dira hortzetan *drillz* izeneko harri bitxien inkrustazioak edo metal preziatuzko zorroak dauzkaten pertsonaia ezagunak. Baina moda ez da berria, maien zibilizazioan ohitura hori zabaldua baitzegoen nobleen artean. Prozesua oso mingarria omen zen, baina, berriki, hortz zulatueta bi-

txiak itsasteko erabiltzen zuten zementua aztertu dute, eta ondorioztatu dute praktika horren helburua ez zela soilik estetikoa. *Journal of Archeological Science* aldizkarian jaso dutenez, itsasgarri hura, besteak beste, pinu erretxinaz eta menta olio egina zegoen eta txantxarra nahiz ahoko infekzioak prebenitzen laguntzen zuen. ●

'BIDEAN' LIBURUA IKASTETXEETAN



Bidean da San Antonio

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Udazkena izango zen. Edo uda, akaso. Ez dut ondo gogoan, hilabete batzuk pasa baitira da-goeneke; baina ARGIAk zenbait ikastetxetara Koldo Rabadanen *Bidean* liburua bidalia zuen eta hemen email-er jasotako erantzun bat: "Zuekin harremanetan jartzen naiz, *Bidean* liburua dela-eta luzatutako proposamena eskertu eta ikastetxea eraldatzeko prozesu bati hasiera emateko asmoa dugula jakinarazteko. Liburua bidela-gun eta euskarri izatea dugu helburu. Hilean behin, dekalogoko atal bat irakurri eta landuko genuke, horretarako hausnarketarako eta eztabaidarako denbora eskainiz". Oier Urigoitia Ertzilurrutiren hitzak dira. Durangoko San Antonio ikastetxeko zuzendari pedagogikoa bera. Prozesua zertan den galdetu diogu.

Ikasturte honetan hasitako ibilbidea izanik, gaur gaurkoz ideiak, iritziak, proposamenak eta hausnarketak partekatzen ari dira hileroko kapituluaren irakurketa eginez. "Bidea hasi besterik ez dugu egin", azaldu digu Urigoitia, "momentuz begirada aldatu dugula esan dezaket". Epe laburreko helburu bezala markatu dituzte kontzienteki hezkuntza eredu-

eragina duten faktoreak identifikatzea eta horiek modu esanguratsuan erabiltzea. Epe luzeagoaz hitz egiten hasita, "oraindik harroago sentiaraziko gaituen hezkuntza eredu eskaintzea da asmoa", adierazi du.

ZERK EGITEN DU ERAKARGARRI LIBURUA?

Arestian esan bezala, hezkuntza ereduaren inguruko alderdi desberdinetan murgiltzeko hausnarketa egiteko aukera eskaintzen du *Bidean*-ek. "Ametsetako eskola irudikatu eta gauzatzeko gonbitea luzatzeaz gain, arrakastarako hainbat gako eskaintzen dizkigu eta, nire ustez, liburua erakargarri egiten duena da esperientzian eta hezkuntzarekiko maitasunean oinarrituta dagoela", erantzun dio galderari ikastetxeko zuzendari pedagogikoa.

Lehen pausoak ematen ari den prozesuan, ezin oraindik ere emaitza praktikorik eskaini. Hori dute hausnarketa prozesuek. Norabide aldaketak baterako agian beharrezkoak dira, baina hasieran itxura batera ez dute emaitzarik erakusten. Denak behar du bere denbora. Garrantzitsuena da, bidean dela San Antonio ikastetxea. ●

Beterri Saretuz-en amaiera ekitaldian izango da Argia

Ekainaren 16an jardunaldi berezia egingo du Beterri Saretuzek Astigarra-gan, Beterri-Buruntza eskualdeko ekonomia eraldatzailearen sareak. Ikasturtea amaitzeko agerraldia antolatu du eta ARGIA ere bertan izango da.

2019an ekin zuen Beterri Saretuzek ibilbidea, parte hartzean oinarrituriko ekonomia eraldatzailearen eskualdeko ekosistema bat sortzeko asmoz, enpresak, erakundeak eta bestelako eragileak bilduko dituen. Lasarte-Orian du egoitza ARGIAk, eta lurraldean eragitea bada bere balio eraldatzaileetan sartzen den esparruetako bat; horregatik, hasieratik izan da egitasmoan. *Beterri-saretuz.eus* ireki berri duten webgunean kontsultatu daitezke ekimenaren helburuak, ibilbidea eta parte hartzen duten eragileen inguruko informazioa, baita ARGIArena ere.

Aurtengo ekintza planaren barruan enpresa eraldatzaileen beharrak asetzeko hainbat saio antolatu ditu Beterri Saretuzek. *Esperientzia Trukeak* deitu diote zikloari, eta antolaketa ereduez, bazkidetza prozesuez eta laneko inklusioaz aritu dira. Horren barruan, adibidez, Lasarte-Oriako Sutargi enpresak bazterkeria arriskuan dauden pertsonen egiten duen lana ezagutu zuten –bertako arduradun Jennifer Alonso-ri egindako elkarrizketa Argia.eus-en dago irakurgai–.

Astigarragako Kultur Etxe zaharrean egingo den jardunaldian lehenik sareko kideak elkartuko dira, orain artekoaz eta aurrera begirakoez hausnartzeko. Ondoren ekitaldi irekia izango da, 12:30ean, eta eskualdeko erakunde eta eragile guztiak gonbidatu dituzte. Izena webgunean bertan eman daiteke.



Laneko inklusioari buruzko saioa.

BETERRI SARETUZ

BOLBORA FINA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Parisen izan al zara aspaldian? Agian Opera plazako Palais Garnier Opera etxetzarra bisitatuko zenuen. Ni ez naiz horrelakoak bisitatu zalea, baina hurrengoan hurbiltzeko grina piztu zait. Bertako eskailera handiaren barneko balkoien zutabetxoak ezagutu nahi ditut, 55 cm altuera duten 189 zutabetxo.

Zutabe horiek harri berezi batez eginak daude, fluoritaz; mea hauskor eta kolore askotako kristal ikusgarriak dituenak da. 1860 aldera jauregi horri gerora izena emango zion arkitektoak, Charles Garnier, harri bitxi horrekin txunditu nahi izan zuen Paris. Horretarako Morvan mendilerroko La Petite-Verrière herriko Voltennes meategira jo zuen, hango fluorita gustatu. Harri-haitz hartatik harri-mokor handiak zartatu edo hautsi gabe eskuratzea ez zen erraza; horretarako sutauts edo bolbora berezi bat erabili zuten. Garai hartan bolbora beltza edo fusilen bolbora deitzen zena. Bolbora hori mantsoa da eta honela osatua dago: %40 potasio nitratoa edo salpetroa, %30 sufrea eta %30 egur ikatza. Nahasketa proportzio hori ez da ohikoa, tirorako bolbora arruntak erdia du bi azken osagaietatik.

Bolboraren kalitatea erabilitako egur ikatzaren arabera da. Ikatza bolbora



Bolboraren kalitatea erabilitako egur ikatzaren arabera da. Ikazkintza horretarako egur onena zumalakarrarena jotzen da (argazkian). Bolbora gerra kontuetarako garrantzitsua zen garaietan zumalakarrak ezin zen nola hala moztu, ezaguna da Frantziako Louis XIV erregearen 1669ko Araudia basoko lehengaiak babesteko; bertan zumalakarraren ustiapenaren monopolioa ezarri zuen.

beltza egiteko erabili nahi bada, pirolisia 500ºtan jarrita erre behar da egurra. Aspalditik ezagunak dira ikazkintza horretarako egur onenak: zumalakarra (*Frangula alnus*), ahuntz sahatsa (*Salix caprea*) eta aranondoa (*Prunus domestica*) adibidez. Onena zumalakarrarena jotzen da, ikatz porotsu eta arina egiten du. Bolbora gerra kontuetarako garrantzitsua zen garaietan zumalakarrak ezin zen nola hala moztu, ezaguna da Frantziako Louis XIV erregearen 1669ko Araudia basoko lehengaiak babesteko; bertan zumalakarraren ustiapenaren monopolioa ezartzen da.

Zumalakarra ez da landare oso ezaguna. Ugaria bai, baina bere erabilerak ahaztu edo utzi diren eran bera ere oroitzaren osinean utzietsia dugu. Toki heze eta lur azidoak atsegin dituenaz, gero eta gehiago ikusten da isuri atlantikoan. 4 bat metro arteko zuhaixka egiten da. Azal ilun distiratsuan nabarmenak ditu pintar txuriska borobilak. Azala

bera tindagai gisa erabiltzen da, guri-tik lehorrerako tartean non dagoenaren arabera kolore desberdinak lortzeko. Adarrak saskigintzarako ere ez dira txarrak, malguak eta kolore dotorekoak. Lore laruak ditu, nektar gozoz gainezka polinizatzaileen gozamenarako. Horietatik fruituak etorriko dira, hasieran berdeak, gero gorriak eta heldutasunean beltzak. Azukre punttua badute, baina toxikoak dira. Hala ere orkatzek biziki maite dituzte, agian bere eragin psikotropikoarengatik. Zuraren giharra gorritzat du eta gizena zuri-larua; egur ikatzetarako bezala oinetako orkoiak egiteko erabili izan da, baita iltze, txapa eta abarretarako ere. Baratzeetan pardatarako erabili izan da.

Azala purga bezala erabili izan da maiz, baina kontuz, tamaina hartu, eragin oso bortitza du eta gorrienak ikus-teko egon zaitezke dosia gaindituz gero. Beste bolbora bat... ●

ekainak 5, ingurumenaren nazioarteko eguna



Euskadiko Nekazaritza eta
Elizadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi



Europar Batasuna
Unión Europea
European Union

ARTAL

“ARTZAINEI PREZIO JUSTUA ORDAINDUZ PROIEKTU ZIRKULARRA SORTU NAHI IZAN DUGU”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Adriana Ojer Ruiz eta Alain Flores Mendia dira Artal proiektuaren atzean dauden pertsonak. Artilezko Hodeiak bezala ezagutuko du zenbaitek egitasmoa, duela gutxi arte izen horrekin sinatzen baitzituzten artilez egindako haien produktu artisauak. Orain, berriz, eskulanean jauzi bat eman eta proiektuak beste dimentsio bat hartu duela ikusirik, ekimena berrizendatzea erabaki dute. “Artaldetik dator Artal ize-na, nolabait, gure filosofia ere hori dela-ko: artalde batean bezala elkar zainduz eta erlazionatuz bizitzea”, dio Floresek. Zorokiainen dute tailerra.

NAFARROAKO BOST ARTZAINEN ARTILEA

Lakaben feltroa egiteko ikastaro batean piztu zitzaion artilea lantzen hasteko gogo-
goa Ojerri. Gerora, gorua –ehunak iruteko tresna– eta kardaria eskuratu zituen, bi makina txiki. “Bretainian artilea lantzen zuen gizon baten tailerrean izan ginen ikasten, eta orduan pentsatu genuen hau Euskal Herrira ekarri beharra genuela, artilea arazo bilakatzen ari baitzen”. Bre-

tainian ikasitakoarekin, 2015ean, haien-tzako yurta bat egin zuten artilea erabiliz, eta bestelako produktuak ere modu serioagoan ekoizteari ekin zioten: xaboiak, tapeteak, karterak, lanparak... hurbileko merkatuetan eta denda txikietan saltzen zituzten sortutakoak.

“Euskal Herrian ez dago jarduera honen inguruko informazio handiegirik, eta formakuntzarako asko jo dugu Frantzia aldera. Bestetik, Sarako Iletegia proiektukoek ere asko lagundu digute”, azaldu du eskulangileak. Nafarroako bost artzainei erosten diete artilea gaur egun, eta batik bat Nafarroako arrazarekin eta berrinchonarekin egiten dute lan, nahiz eta latxarekin ere zerbait ari diren. “Lantzeko zailagoa da latxaren artilea, baina pixkanaka ari gara produktuak sartzen”. Artzainei prezio justua ordaintzea oinarritzkoa da haientzat.

BARNE-ZOLETATIK YURTARA

2.000 kilo artile inguru eraman dituzte aurtun garbitzera Artaleko kideek. Prozesu osoa nola den azaltzeko eskatu diogu Floresi. “Artilea jaso, aukeraketa egin

eta kanpora daramagu garbitoki batera. Ondoren, zati bat kardatzera eramaten dugu, manta handi modukoak egiteko, eta beste zati bat guk lantzen dugu taillerrean, kardari txiki batekin”, dio. Gaineratu duenez, garbilekura artile kantitate handiak eraman beharra dituzte, 500 kilo inguru baino gutxiago badira ez baitiete hartzen. “Hori eragozpena da proiektu txikientzat, eta inbertsio handiak egitera behartzen gaituzte”, dio.

Eta, zer egiten dute behin artilea kardatuta? Mantak, gerrikoak, artilezko belakiekin estalitako xaboiak, manoplak, lanparak, etxeko zapatilak, barne-zolak... “Horretaz aparte, ideia berrietara oso irekiak gaude eta esperimentatzea gustatzen zaigu”, dio. Datorren urtera begira, esaterako, poltsak eta jakak ari dira lantzen. Baina artilea beste jarduera berezi baterako ere badarabilte Artalen: bizitokiak eraikitzeke. “Gurea egiten ikasi genuen, eta orain yurten eraikuntza ere eskaintzen dugu. Artilea isolatzaile moduan erabiltzen da, horretarako oso ezaugarri aproposak dituelako, transpiratzeaz gain hezetasuna ere erregulatzen baitu”. ●



Ezkerreko argazkian, Alain Flores artilea lantzen. Eskuinekoan, Artal proiektuak artilez egiten dituen lanparak, poltsatxoak, belakiekin estalitako xaboiak, barne-zolak...

“ ”

Moderno aitzakian erdara hobesten dugu

Joseba Tapia

Egon edo ez egon bakarkako bederatzigarren diskoa argitaratu du Joseba Tapiak (Lasarte-Oria, 1964). Horri buruz solas egitekoak ginela iritsi da berria: aurtengo Adarra Saria eman dio Donostia Kulturak, bere ibilbide oparoaren aitortza modura. Elkarriketaren fokua zabaldu dugu, beraz, eta sariaren aitzakian errebasatu ditugu agertoki gainean igarotako urte luzeak, musikari gisara sentitutako konexio bereziak, erromeria girotik apustu pertsonalago batera jauzi egiteko arrazoiak, eta beste hainbat kontu.

KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Nola jaso duzu Adarra Saria?

Ez naiz sari zale –ez omenaldi zale ere, eta ez nuen neure burua sekula egoera horretan irudikatu. Zahartu naizen seinale izango da [barrez]. Edonola ere, saria nire izenean etorri arren atzeko talde guztiari zor zaion aitortza gisa ulertu nuen, eta pentsatu nuen baiezkoa esan behar nuela.

Hitza hartu zenuenean Mikel Laboa aipatu zenuen. Zure belaunaldiko musikariek harengandik jaso omen zenuten generoak apurtzeko grina.

Aurreko sarituen talde bereko sentitzen naiz, adinak adin. Lanbide berean ez ezik, ekintza berdinean gabiltza: erresistentzian. Euskara hutsean lanean ari garen kantariok badaukagu kastigu gehigarri bat: ez gaituzte programatzen, eta ez gara erdal medioetan agertzen –guretan ere gero eta

toki txikiagoa dugu–. Halere konpromiso artistikoa hartua dugu euskararen alde lan egiteko, seguru gaudelako euskarak kantu berria behar duela bizirauteko. Munduaren martxa –edo desmartxa– ero honek erronka berriak jartzen dizkigu etengabe. Gozatzeko, edertzeko, hanka sartzeko, berritzeko. Mikel Laboa beti egoten zen adi gazteen forma berrietara, beharbada berarentzat oso urruneko izan arren. Niri ere asko interesatzen zait zertan dabilzan ulertzea.

Zure ibilbide osoan antzematen da etengabeko bilaketa grina.

Soinu kromatikoa ikasten hasi nintzen

Migel Bikondoarekin. Eskola garrantzitsua sortu zuen, oso maila altukoa. Forma berriak –askotan oso konplikatuak– ikasi behar izaten genituen, eta beharbada mundu garaikide hartatik datorkit bilaketa grina hori. Bestalde, banuen trikitiaren egarri ase ezin bat. Akordeoiarekin saiatzen nintzen soinu txikiaren irrintzi hura ateratzen, baina ez nuen erabat lortzen. Azkenean, nire belaunaldiko askok bezala, soinu kromatikoa utzi eta trikitia hartu nuen 14 urterekin. Junkera, Zabaleta, Motriku, Miren Etxaniz, Imuntzo, Leturia... Kaltetarrok baserri mundua inbaditu genuen, eta haiek pazientzia handiz baina goxo hartu gintuzten. Gure begietara itxia goa zen baserri mundua, eta nekezago sartzen ziren kanpoko berrikuntzak, estiloak, janzkerak... Gu modernoagoak ginen, beste musika batzuek erakartzen gintuzten.



Zerk, esaterako?

Rocka eta jazz entzuten genuen. The Beatles, Eric Clapton, Queen, Eagles, country mundua... Euskarazko lehen rock taldeak ere orduan hasi ziren – Errobi, Koska, Indar Trabes –, eta baita Egan, Akelarre, eta tankerako berbenak ere. Denek egiten zituzten kantu anglosaxoien bertsioak. Zein onak ziren! Trikitiaren mundua oso bestelakoa zen. Osabak irakasten zizkidan erromerietako kantak –*Amparito Roca, Gallito, Recuerdo Florido*, eta antzekoak –, eta baita fandango eta arin-arin erreperitorio oso zabala ere.

Zuen erreferentzia berriak erromerietara eramaten hasi zineten?

Hasieran ohiko dantzaldia egiten genuen, baina laster hasi ginen hala moduz eragin berriak sartzen. Trikitian ez zen ia kanta berririk egiten. Soinu handitik hartzen genituen, baina berriak behar genituen –txapelketetarako, batez ere–. Ezinbestean, gu geu hasi ginen kanta berriak sortzen –Jesus Mari Esnaola lizartzarrek asko lagundu zigun horretan–. Diskorik ere apenas zegoen, eta aurreneko proposamenak iritsi zitzaizkigunean hanka motz geunden. Gizarte aldaketa erabateko hartan dena zen berria: baserri mundutik mundu urbanorako jauzia, ikastolak, politika... abertzaletasunak ere irudi berriak behar zituen eta, besteren artean, trikitiari erreparatu zion.

Irakurri izan dizut trikitia instrumentu modernoa zela abertzaletasunak folklorizatu aurretik.

Trikitiaren ibilbidea oso kuriozkoa da. Hasieran –XX. mende hasieran– arrotza, zikina eta puskatzailea zen. Baina jendeak maite zuen, eta ezkutuan bazen ere, erromeriak eta dantzaldiak egiten zituzten. Pixkanaka trikitia euskaldundu zen: eta orduan zen alaia, sana eta gurea. Identitatearen ematen zion euskal munduari. Folklorikoa bilakatu zen, baserriarrez jantzarazten gintuzten. Baina hasi ginen gure diskoak ateratzen, eta orduan berriz ere arrotza, zikina eta puskatzailea bihurtu zen. To, 180 gradu-ko itzuli mortala! Hura rocka omen zen, ez garai bateko trikitia. Baina gazteek maite zuten, gure atzetik ibiltzen ziren eta, hala, trikitia bihurtu zen euskal musikaren sinbolo eta ordezkari.

Landa munduak jatortasunaren labela itsasteak ere lagunduko zuen...

Etnikotasun modukoa eman zion horrek, bai. Horregatik diot trikitiaren bilakera oso kuriozkoa dela: musika eskola eta kontserbatorio guztietan musika tresna izar bihurtu zen, matrikulazioak beste instrumentu guztien oso gainetik egiten ziren. Albokak, txalapartak edota dultzainak ere sekulako gorakada bizi izan zuten, eta oso birtuoso bilakatu ziren bide horretan. Soinu handia gelditu zen barku horretatik aparte, garai batean oso garrantzitsua izan arren, herrikoiairekin hartu-emana moztua zeukalako.

“ ”

***Trikitiarena oso
kuriozkoa da: hasieran
arrotza, zikina,
puskatzailea; gero
folklorikoa; hasi gure
diskoak ateratzen,
eta berriz bihurtu zen
arrotza, zikina eta
puskatzailea***

Trikitiaren zabalpen horren aurrean izan zen erreakzio puristarik?

Bai, izan ziren idatziak gure txapelketen eta kanta berrien kontra. *Diario Vasco*-n atera zen idatzi bat esanez hori ez zela trikitia, eta bide horretan segituz gero akabatzeraz zihoala. Auziari buruzko mahai-inguruak ere antolatu ziren. Maila teorikoan kezka sortu zuen aldaketa guzti hark, eta normala ere bazen, belaunaldi aldaketa gertatu zelako. Halere, jende gehienak osagarritzat ikusten ziotuen betiko trikitia eta olde berria.

Eta zuretzat zer izan ziren txapelketa haiek?

Niretzako selektibitatea bezalako zerbait izan zen, unibertsitatera igarotzeko pasa beharreko peaje modukoa. Aitortza ere bai. Gizarte aldaketa hartan sekulako tiradizoa izan zuten txapelketek, baina injustizia ere bazegoen: lehenari soilik ematen zaio aitortza, eta lehena izan ez denaren estilo eta ekarri artis-

tiko guztia baztertzen da. Pilota partidu batean ez da halakorik gertatuko behar-bada, baina artearen mundua subjektiboa da, eta iritzia eta gustu askotarikoak daude. Aipatzen dut selektibitatearena, txapelketen ondoren hasi zirelako gure ibilbide artistikoak. Halere, kanta berriak aurkezteko parada eman ziguten txapelketek. Sorkuntzan martxan jarri gintuen.

Erromeria giroa utzi eta bakarkako ibilbide pertsonalago bati ekin zenion gero.

Bai, ez zen bientzako tokirik. Txikitan ezagutu nuen kanturako eta letretarako lilura. Osaba-izebek eramaten gintuzten Ez Dok Amairuren kontzertuetara, eta grabatu ere egiten genituen kontzertu haiek, gero transkribatu eta, azkenik, abesti haietako batzuk gitarra espainolarekin kantatu. Ez genituen erdiak ulertzen, baina sumatzen genuen zerbait berezia Xabier Leteren ironian, hitzen dantza horretan, mezueta, egituretan. Antzera Laboaren *Lekeitio*ekin eta bitxikeriekin.

Aldaketa horiek hor dauden arren, zure ibilbidean sumatzen da apustu batekiko fidelotasuna ere. Nola lortzen da hori?

Intuizioz, esango nuke. Hemen hasieran bakoitza bere estiloan gotortzen zen –Euskal Herritik kanpo ere ezagutu genuen antzeko gatazkarik, rocker-en eta mod-en artean, adibidez–. Baina bat-batean formak nahasten hasi ziren, nahasketak horiek ongi etorriak ziren, Kortatu entzuten zuenak Kaxiano entzun zezakeen, Negu Gorriak-ek *Bertso Hop* atera zuen, Hertzainak-ek trikitidun rocka egiten zuen, Oskorrik folka trikitiarekin, Ruperrek ere sartu zuen Josu Zabalaen trikitia, Errobik alboka... Zer zen euskal musika? Hainbat erantzun eman zitzaizkion galdera horri. Alde batetik, formak markatzen zuen euskal estiloa –*Quousque tandem*–; bestetik, berdin zen forma, euskaraz egiten zena zen euskal musika. Gu bigarren talde horretan kokatu ginen, estiloak nahastu genituen nahieran, eta euskal izaten jarraitu dugu. Aldiz, euskal estiloan erdaraz kantatzeraz bultzatzen gaituzte euskararen kontrako erasoetan dabilzanek: “Kantatu erdaraz kantaren bat bederen, bestela ez dizut ulertzen eta pena da”. Erdara sartzen badugu saritu egiten gaituzte, moderno izatea erdararekin lotzen da, eta guk ere sarri moderno aitzakian erdara hobesten dugu.



Zure aldarrietako bat da ekologiarena: tokian tokiko musikari bizi baldintza duinak bermatu behar zaizkiola.

Ekologiarena ez dut nik asmatu, baina ondo dator auzi honetara. Gure mundu txiki honetan kanpoko izaten da beti hoberena, eta kopiatzen saiatzen gara, baina gero gu kanpora joan garenean gure gazta dastatu nahi izaten dute, ez gure Coca Cola. Euskaraz entzun nahi gaituzte, ez ingelesez. Horrek erakusten zuen mundua bakoitzak beretik osatzen dugula, eta ordutik hasi nintzen gureari garrantzi handiagoa ematen, eta duintasuna eskatzen. Kanpoko taldeak ondo ordaintzen dira Euskal Herrian, baina bertakoak prekarioago gabiltza: arazo asko dauzkagu kontratuetan, ogasunean oztopoak besterik ez dizkigute jartzen. Orain gutxi, euskarazko sortzaile profesionalak Lanartea elkartean batu gara. Guztion artean presio eginez beharbada

lortuko dugu duintasun pixka bat gure lanbidean.

Egon edo ez egon kaleratu berri duzu, kanta berriz osatutako azken diskotik zortzi urtera. Nolakoa izan da prozesua?

Testutik abiatzen naiz. Haren erritmoak eta tonuak eramaten naute doinua asmatzera. Tristeia, dramatikoa, ironikoa... jantzirik egokiena josten saiatzen naiz. Gero, disko osoaren soinu tratamendua diseinatu behar da. Kasu honetan, egungo taldearekin grabatzea erabaki nuen, eta moldaketak egiten hasi nintzen. Kanta batzuk harizko orkestrarekin probatzeko gogoia ere baten. Azkenean, erritmo dantzagarria eta testu serioagoa elkarrekin jarri ditut, eta alderantziz. Testu umoretsuak moldaketa klasikoagoarekin nahastean oreka eder bat lortu dudala iruditu zait. Soinu kromatikoa ezinbesteko tresna

izan dut doinua sortzeko eta moldaketak egiteko. Hark lagundu dit bilatze eta antolatze prozesuan.

Diskoaren promozio bideoetan Chill Mafiako en laguntza izan duzu. Erreferentetzat zauzkate haiek. Gogoratzen al duzu zure ibilbidean zehar izandako beste konexio indartsurik?

Diskoa grabatu eta gero hurbildu ginen Chill Mafiakoengana, promozioa diseinatzekoan –beren kantuetan aipatzen nindutela konturatu ginelako–. Musikan askotan sentitu ditut konexio bereziak: 16 bat urte izango nituela, adibidez, Errobiren Orioko kontzertuan txundituta gelditu nintzen. Anje Duhalde, Mixel Ducau, Beñat Amorena eta Jean Paul Gill. Zer zen hura! Ez nuen ordura arte maila hartako rock bandarik ezagutu, sekulako soinua zuten zuzenean. Beste kontzertu ahaztezin bat ere gogoratzen dut: Herri Irratiak antolatu zuen “24 orduak euskaraz”. Belodromoa bete, hango tentsio eta metxero festa! Euskal kantagintza modernoaren ordezkariak kantuan, eta tartean Sakabi eta Egañazpi, Laja eta Iturbide. Izugarria izan zen. Azken bat aipatzearren: Intxaurrendoko kultur etxean Broken Brothers izeneko Iruñeko talde batekin maitemindu nintzen. Zer indar eta zer trebetasun! Tartean Ion Celestino izeneko bat zebilen. Kontzertu bukaeran agertokira hurbildu eta nire lilura adierazi nion. Hark ezagutzen ninduen. Ordutik hona bi disko egin ditugu elkarrekin.

Saritu berri, gazteak laudorioka... aparretan zaudela esango luke edonork.

Errekonozimenduak plazera ematen du, eta zure lana baloratzen dela esan nahi du. Askotan kontrakoa gertatzen da ordea, eta horrek ezinegona sortzen du –asmatu ezarena, edo lan txar bat aurkeztu izanarena–. Azken disko honekin, elkarriketa batean erdal kazetari batek miresmenez bota zidan: “*Me alegro de que hayas vuelto a la música*” (“Pozten naiz musikan zabiltzalako berriz”). Sekula ez diot kantatzeari utzi! Ikusgarritasun handiagoa behar dugu gure medioetan. Herriro antolatzen diren jaialdi erraldoietan euskal taldeen presentzia txikia da, salbuespenak salbuespen. Telebistan ere ez daukagu duintasunez agertuko garen musika saiorik. Eskatzen hasiz gero, horiek denak eskatzen ditut [barrez]. ●

VOLTAIRINE DE CLEYRE

Anarkista, besterik ez

Voltairine de Cleyre (1866-1912) XX. mendeko mugimendu anarkista eta feministako emakume garrantzitsuenetariko bat izan zen, Emma Goldmanekin batera. Feminismoa boto-eskubidearen aldeko borrokara mugatzen zen garaian, Cleyrek bide berriak ireki zituen eta gaur eguneraino iraun dute arrasto horiek. Besteak beste, emakumeen independentzia ekonomikoa aldarrikatu zuen, zalantzan jarri zituen genero-rolak eta borrokatu zuen sexu-esklabotzaren aurka, bikote ezkonduetan gertatzen denari arreta berezia emanez. Horrekin batera, aitzindaria izan zen gastu militarren gaineko eragozpen fiskalaren gaian. Haren obra –eta izena bera– erabat ahaztuta egon dira, eta 50 urte baino gehiago igaro behar izan dira, mugimendu feministaren loraldiarekin bat eginez, Cleyrek izan zuen garrantziaz jabetzeko eta haren idazkiak berreskuratzeke.

 JULEN AZPITARTE

Berreskuratze horren harira, Madrilgo Stirner argitaletxeak, *Escrito en rojo* (Gorritz idatzia) liburua plazaratu du, Emma Goldman-en aitzinsolasarekin. 1914. urtean plazaratutako *Selected Works* (Lan aukeratuak) lanetik ateratako idazkiekin egindako bilduma da: hizlari eta artikuluegile bikaina zen, baita poeta txukuna ere, baina ez zuen obra luzeagorik utzi, seguruenik goiz hil zelako, bere osasun ahula tarteko. Aipatutako liburuan anarkistaren bizitza zeharkatu zuten hamaika gai jorratzen dira, emakumearen eta iraultzailearen potreta marrazteko. Besteak beste, anarkia bera, Errusiako literatura, Mexikoko iraultza, Parisko Komuna edo preso beltzek abesten zituzten doinuak, gatibu-lanak egiten zituzten bitartean. “(...) Eta pistolari heltzen zion

aurpegi itzaltsuak irri izoztuz behatzen zuen: ‘Abesten duten bitartean, lan egiten dute’, esan zuen irribarre lau eta ironikoak”. Halaber, Goldmanen hitzarrak Cleyreren biografia zehatza jasotzen du, alde intimoa eta publikoa uztartuz. “Voltairine espiritualki berpiztua izaten ari da –nolabait esateko–, poeta errebelde, askatasuna maite zuen artista eta Amerikako anarkista garrantzitsuen gisa”.

MUGIMENDU LIBREPENTSALARIA

AEBetako mugimendu libertarioa 1940ko hamarkadan sortu zen, herrialdea II. Mundu Gerran sartu zenean. Aurrerago, 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970eko hasieran, sekulako gorakada izan zuen. Halere, lehenago izan zen beste korrante anarkista bat, Benjamin R. Tucker-ek New Yorken

abiatutako *Liberty* hamaboskariaren inguruan garatu zena. 1881. urtetik 1908. urtera plazaratu zen, eta sasoi horretako protagonista nabarmena da Voltairine de Cleyre, zeina 1866. urtean jaio zen Leslie herrian (Michigan). Aita etorkin frantziarra zuen, Hector de Claire, eta hark jarri zion izena, Voltaire idazlearen omenez. Ahizpa txiki bat zuen, Adelaida. Ama, Harriet, aitaren gerizpean bizi zen.

Laster antzeman zuen aitag alaba nagusia oso adimentsua eta talentu handikoa zela, eta haren izaera “ipurterrea” bezatzeko asmoz Port Huron-eko komentu batean sartu zuen 13 urte zituela. Handik ihes egiten saiatu zen Cleyre, baina azkenik 17 urterekin graduatu zen. Institutio erlijioso hura kartzela bihurtu zitzaion, bere askatasuna erabat txikitu zuen zama. “Heriotzaren itzaleko bailararen antzekoa izan zen, eta oraindik orbain zuriak daude nire ariman. Bertan, ezjakintasunak eta superstizioak erre ninduten, beren infernuko suaren bidez, egun itogarri haietan”. Ondorioz, monasterioa utzi zuenean erlijioaren aurkako borroka sutsua abiatu zuen, erabateko ateismoari irmo helduta.

Hala, Michiganeko erdialdera bueltatu zen. *The Progressive Age* astekari librepentsalariaren idazteari ekin zion, apurka-apurka hitzaldiak ematen ere hasi zen, eta 19-20 urte zituela ateismoaren eta anarkismoaren aitzindari Thomas Paineri buruzko berbaldiak eskaintzen aritu zen estatuko mendebaldean. 21 urte betetzerako, mugimendu librepentsalariaren izar bihurtua zen. Askotariko ikuspegiek egiten zuten bat mugimendu horretan eta kideek hainbat gai aztertzen zituzten, hala nola sexualitatea, emakumeen eskubideak, jaiotzasaren kontrola, arraza-harremanak, lan-harremanak eta gizabanakoaren harremana Estatuarekin.

HAYMARKET KASUA

Librepentsalariek harreman luze eta es-tua izan zuten anarkismoarekin, agintearen aurkako jarrera bera zutelako. Beraz, gerora anarkista bihurtuko ziren asko korronte horren bidez iritsi ziren mugimendu libertarioa, Cleyre bera, adibidez. Haren jauzi anarkista Haymarket kasuak eragin zuen: Chicagoko poliziak tiro egin zuten manifestariei McCormick laborantza-fabrian. Pertsona bat hil zuten, baita beste zenbait zauritu ere. Biharamunean, anarkistak Haymarket Square-tik gertu bildu ziren protestatzeko. Polizia agertu eta bat-batean lehergailu batek eztanda egin zuen. Polizia tiroka hasi zen, zazpi agente eta lau langile zendu ziren. Gertaeraren ondotik, zortzi anarkista epaitu zituzten. Cleyrek haxe bota zuen egunkarien lerroburuak irakurtzean: "Eskegi beharko lituzkete".

Betirako damutu zen hitz horiek esan izanaz. Auzipetuek ez zuten zerikusirik atentatuarekin, baina kondenatu egin zituzten hala ere: bosti heriotza zigorra ezarri zieten eta gainerakoei kartzela-zigor luzeak. Exekuzioek Cleyre izutu eta aztoratu zuten eta, ondorioz, anarkismoarekin bat egin zuen. "Ez diot neure buruari inoiz barkatuko esaldi ezjakin, lotsagarri eta odol-egarri hori. (...) Nahiz eta badakidan hildakoek barkatuko lidaketela, nahiz eta badakidan maite dituztenek barkatu egiten didatela. Baina nire ahotsak, gau hartan entzun nuen bezala, oihartzun egingo du nire belarrietan nire heriotzara arte: gaitzespen eta lotsa mingotsak". Presoak askatzeko zenbait ahalegin egin zuen, eta bere bizitzaren amaieran Chicagora joan zen bizitzera, bai eta bertan hil eta lurperatu ere, Haymarket-eko martirien ondoan.

Aurretik, anarkismoaren doktrina zabaltzen eman zuen bizitza, Estaturik gabeko gizartearen aldeko ahots karismatikoa bilakatu arte. Cleyre ez zen teoriko azpimarragarria, baina sekulako gaitasuna zeukan bere irakurketetatik jasotako ezagutza guztiak hausnartzeko, sintetizatze eta komunikatzeko. Apartak ziren bere hitzaldiak, eta hain egin ziren entzutetsuak, Ingalaterra, Eskozia eta Norvegia ere bisitatu baitzituen. Milaka lagun biltzen ziren entzuteko.

Tradizio estatubatuarreko anarkismo indibidualistari lotu zitzaion bere ibilbide libertarioaren hastapenetan. 1894. urtean idatzitako *In Defense of Emma Goldman and the Right of Expropriation* lanean (Emma Goldmanen eta desjabetze eskubidearen alde), joera indibidua-

lista horren alde egin zuen nabarmen: "Goldman andereñoa komunista da; ni indibidualista naiz. Berak jabetza-eskubidea suntsitu nahi du, nik erabili nahi dut. Nik pribilegioaren eta agintearen aurkako gerra egiten dut eta, beraz, jabetza-eskubidea, pertsonaren eskubide erreala, deuseztatu egiten da".

Aurrerago, adjektiborik gabeko anarkismoaren aldeko hautua egin zuen, bere diskurtsoa norberaren eta gainerakoen askatasunaren inguruan ardazten baitzen, agian gaztetan komentuan igarotako itxialdiaren ondorioz. Finean, ez anarkia indibidualistak ez anarkia komunistak ez zuten askatasuna mantenduko: "Anarkista naiz, sinpleki, etiketa ekonomikorik erantsi gabe".

Bere bizitzako azken urteetan, 1910ean, Chicagora joan zen gazteta-ko lanbidean aritzeko, etorkin gazteen irakasle. Idazten ere jarraitu zuen, besteak beste, Louise Michel-en biografia bat itzultzen ari zen frantsesetik. Baina oso gaixo zegoen, 1902. urtean izandako eraso bat tarteko: bere ikasle ohi batek tiro egin zion antisemita zela egotzita. Goldmanen hitzetan, "bere bizitzaren zati handi bat juduak hezten eman zuen!". Cleyrek erasotzaileari barkatu zion, eta eskatu zuen zentro batera eraman zezatela, senda zedin. Bere hiletan, 1912. urtean, 2.000 pertsona bildu ziren: "Nire saria gazteekin bizitzea da; kideekin oraindik buruz buru jarraitzen dut: botak soinean ditudala hilko naiz, eta nire aurpegia Ekialdera jiratuta, Ekialdea, argia". ●





LIBURUA

Sokak, piztiak eta loreak



39 LORE

AMANCAY GAZTAÑAGA

SUSA, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Arte dramatikoa arte efimeroa da eta aldi bakoitza berezia da horren ondorioz. Bere hutsuneetako bat, ikerketaren ikuspegitik, dokumentazio falta da. Hala ere, azken aldian, zorteko gabiltza. Batetik EHAZEren argitalpenak eta bestetik EHAZE eta Susaren arteko lankidetzatik jaiotako Ganbila bilduma ditugulako.

Horri perspektiba feminista gehitzen badiogu, beste hutsune batez ari gaitezke. Emakume sortzaileen ikusgarritasunaren arazoaz (arte guztietan gertatzen dena, jakina). Baina hor ere zorteko gabiltza. Eneritz Artetxek 2019an EHAZE-rekin argitaratu zuen *Karanbola hiru-koitzan* esan zuen emakume sortzaile euskalduna izatea zapalkuntza hirukoi-

tza dela eta egoera horrek asko zailtzen duela bidea.


2021ean, ordea, Amancay Gaztañaga etorri zaigu *39 lore* lanarekin. “Emakume dramaturgoak behar ditugu, antzerkiaren mundua ondo ezagutzen dutenak, idatz ezazu nahi duzuna” esan zioten, eta hala egin du. 38 lorek sendatzen omen dute arima eta egileak bat gehiago sartu du sortan, bere ekarpen pertsonala egiteko.

Artetxek eta Ganbilakoek pasatako lekukoa hartu eta gaia bere esperientzia eta ezagutzatik kokatu du lehen atalean: euskal emakume sortzailea, dramaturgoa, pertsonaia izatea zer den eta antzerkiari buruzko hausnarketatxoa. Jarraian antzezlan bat sortu du: *39 lore*. Azken atalean antzezlane-

ko pertsonaien oinarrian dauden antzerki klasikoko emakumezko pertsonaiak erakutsi dizkigu, “piztiak”, bere hitzetan.

Antzerkiaren munduak eman dizkigun emakumezko erreferenteen berrirakurketa egin du. Batetik, gizonen ikuspegi androzentriko eta sexistatik idatzitakoak direla argituz eta, bestetik, rol femeninoaren mugak eta zapalkuntzak salatuz. Hori gaintzeko beharraz dihardu, eredu berri eta askatzaileak sortzeko proposamena da, daudenak berrikusita edo berriak sortuz egin daitekeena.

Sokak agertzen dira antzezlanean, eta horiek askatzeko gogoia ere bai. Emakumeek jolasteko, sortzeko, begirada partekatze gongonbidapena egiten da. Ongi etorriak zauriak sendatzeko loreak. ●



MUSIKA

Buztan-kolpe sakon eta ederra



ISLABAT

ISLABAT

AUTOEKOIZPENA, 2022

IKER BARANDIARAN

Gutako edozein, gutako bakoitza isla bat gara ezinbestez, mehatxuz, aukeraz eta bestelako bizidun ugariz inguratutako itsaso erraldoian igeri egiten. Lan ederra daukagu gure flotazio-marra propioa kudeatzen, alboetatik etortzen zaizkigun olatu, uhin eta bestelakoen artean zer jaso eta zer alboratu ondo aukeratzeaz gain.

Elgoibarren bizi den Asier Olabarrietak bizipen, pentsamendu edo sententzioetan urperatu da, oso sakon, eta pandemiaren azken buztankadetan tarteka burua azalera atera du mimo handiz honako lana findu eta erditzeko. Olabarrietak berak idatzi du musika guztia eta grabatu ditu instrumentuetako asko. Baina, horrez gain, pandemiaren

eta bestelakoen ajeak arrantzatzeke ariketa izan daitekeen honetan itsasadar berean botatako sareak gogoz erakarrita lagun oso finez inguratu da diskoa borobiltzeko: Silvia Hernandez piano eta koroetan eta Josu Erviti bateria eta sinteetan batez ere; baina baita beste hainbat *islagun* ere, hitzak idatzi dituztenak edo zenbait piezen emaitza musikala aberastu dutenak.

Gaietan lan abisala haxe eta, era berean, entzulea barneratzeko kanten giroak oso zainduta daude: *(K)ito* xuxurlatuz eta xume hasten da, baina erritmo tribal eta koru zerutiarrak batuz pieza *folky* progresibo eta sasi-epikoa bilakatzen da. *Gainezkek* bestelako taupada dauka eta azkar gorpuzten da, sin-

te eta guzti, hard-rock oinarri pisutsua eta melodia borobila duen kantari. *Eten etengabek* badu soinu bandatik asko, post-rocka, iluntasuna eta Jess and the Ancient Ones taldearen antzeko tempo bereganatuta. *Isilune* borobila da eta jantzi orkestralarekin batzen ditu pop-rocka, hard-rocka eta post-rocka; XXI. mendeko Errobi espaziala? *Bakarrrik gaur* kantak gogora ekarri dit ezinbestean Haritz Harreguyk eta Aitor Uriartek erditu zuten Sen, pop eta hard-rockaren arteko oreka perfektua, *hita* izan daitekeena. Azkenik, ur ertzera gogoz eta gogor bueltatu da egilea: abesteko eran Iparraldeko maisutasunetik edaten duen *Norbera* kanta rockero bizi-bizi eta indartsuarekin. ●



Ikerketa metafisikoak paper laukidunean

PERU IPARRAGIRRE MIKEL ESKAURIAZA

Hemezortzi egileren lanak biltzen ditu *Emma Kunzen unibertsoa*. *Bide-urratzaile bat arte garaikidearekin elkarrizketan* erakusketak. Emma Kunz (1892-1963) ikertzaile eta sendalari suitzarrak pendulua erabiliz egindako tamaina handiko irudiek dute zentraltasuna, eta artista garaikideek Kunzen obrarekin elkarrizketan sortutakoak osatzen du erakusketaren gaineko zatia, bigarren plano batean geratu daitekeen arren erakusketari izateko arrazoia ematen diona.

Erakusketaren izenburuan unibertsoari egindako erreferentzia ez da ohi-koan izan daitekeena bezain azalekoa. Kunz sendalaria zela esan dugu, eta, hain zuzen ere, orain artelan gisa erakusten diren irudi horiek “naturopata gisa egindako lanaren oinarria giza espirituaren bizitzaren eta izaeraren iragatea gidatzen duten arauen inguruko ikerketa

etengabe eta oso pertsonalaren” adierazpen bisualak ziren.

Gaur egunera ekarrita, Kunzek aztertzen zituen auzi metafisiko horien inguruan nahi bezala hausnartzeko parada ematen du kolore, marra eta irudi bakoitzak, haien jatorritik denboran, espazioan eta mundu-ikuskeran hain bereizita. Haien alderdi estetiko hutsagatik ere kontuan hartzekoak dira, hala ere. Haien handitasunak, haien forma eta errepikapen geometrikoek, simetriek asimetriek eta itxura batzuetan kaleidoskopikoak horretarako bide ematen du, are gehiago irudiok Kunzek hasi eta buka egiten zituela jakinda.

Tresnak zirenak (izendatuak eta datatuak, denboran izoztuak, ez izateak erakusten du hori) artelan bilakatuta ageri zaizkigu orain, azken urteetan artista garaikideek haren obra berreskuratu eta iturri gisa hartu baitute. Kunzek

EMMA KUNZEN UNIBERTSOA

NOIZ: urtarrilak 28 - ekainak 19

NON: Tabakalera (Donostia)

haren lanean ikertutakoa eta bere praktika nahi bada artistikoak uzten dituen arrastoak, bide bazterrean geratutakoak, berrinterpretatu eta gaur egunera ekarri dituzte. Elkarrizketa horien emaitza dira Tabakalera erakusgai dauden gainerako lanak, ikuspegi eta teknika ugari biltzen dituztenak.

Erakusketak erakusten duena, azken finean, Emma Kunzen obra arte garaikide bihurtua da, baina baita unibertso askorentzat ezezagun batean barneratzeko gonbita ere. Ikuslearen gain geratzen da azken buruan modu gutxi gorabehera neutroan azaltzen zaizkion bizitzaren eta munduaren inguruko ikuspegi horiek eta haien testuingurua ulertzea, osatzea, zalantzan jartzea; gure garaian nagusi diren dinamika kulturalen logikaren eta Kunzen obraren zentzuaren arteko zubien eraikuntza materiala askotarikoa izan baitaiteke. ●

Roge Hinojosa

URPEKARITZAN ADITUA



UR AZPIAK LILURATUTA

"Lur planetaren %70 ura izanik, nola ez zitzaidan piztuko ba geruza horren azpian dagoenarekiko jakin-mina? Duela ia hamar urte egin nuen urpekaritza lehendabizikoz, Mexikon, eta ordutik dena aldatu zen. Ur azpiko bizitza ikusteko modua aldatu zitzaidan. Itsasoarekin bat egiten duzu, ingurunearekin parte hartuz eta errespetatuz. Beste mundu mota bat dugu ur azpian, bitxia eta istorio asko gordetzen dituena. Jende askok ez du altxor hori ezagutzen".

"Urdaibaiko ur azpian altxor natural ugari dago"

Bizitzaren zati handi bat ur azpian murgilduta ematen du Roge Hinojosak (Amurrio, 1984). Urpekaritzan aditua denak txikitatik izan du itsasoarekin lotura berezia. Lehenik snorkela eta apnea etorri ziren, ondoren urpekaritza; eta behin hura probatuta, ezin haren atzaparretatik ihes egin. Euskal Herriko zein nazioarteko itsasoetan ibilia, egunerokotasunaren zurrumbilotik aldentzen da neopreno barruan.

 LEIRE REGADAS

Toki exotikoekin lotu ohi da urpekaritza. Baina Euskal Herriko kostaldeak zer ematen du?

Euskal Herriko kostaldeak toki asko ditu esploratzeko, istorioz betea dago gainera! Niretzat Urdaibaiko eremua berezia da, altxor ugari dugu ur azpian. Esaterako, Elantxobetik hurbil daude Ogoñoako kobazuloak; bertatik aritzen gara askotan. Egun eguzkitsuetan, kobazuloetatik ateratzean, Mexikoko zenote batean zaudela ematen du. Argiak beste tonu bat hartzen du ur azpian, leku berezia da benetan. Beste adibide bat: Matxitxako eta Bermeo artean *Mina Mani* izeneko itsasontzia dago urpean. 1963an hondoratu zen, eta 35 metro egin behar da behera hura ikusteko.

Dena den, nazioarteko parajeetan ere ibilia zara...

Bai. Nazioarteko bidaiak egin ditut ahal izan dudan guztietan. Urpekaritza ikastaroak jaso ditut atzerrian, maisu profesionala izan arte. Indo-

nesia, Thailandia, Filipinak, Sri Lanka, Maldibak, Egipto... Baina duda barik Indonesia bihurtu da nire bigarren etxea. Lagun asko egin ditut, bahasa hizkuntza ikasi, puntatik puntara bidaiatu.... Bost hilabetez Komodo parke naturalean bizitzen ere egon nintzen, Divemaster ikastaroa egiten nuen bitartean.

Urpeko ekosistemaz gain, jakin-min handia sortzen dute mendeetan zehar urak estalitakoek; hondoratutako itsasontziak, objektuak, tenpluak... hiriak ere badira urpean!

Horixe da jakin-min gehien sortzen didana. Urpean gelditu diren gauza guzti horiek gordetzen duten istorioa biziki interesgarria da. Esaterako, zergatik edo zein eratarik hondoratu den itsasontzi bat, zenbat pertsona zihazten barruan edo zer garraiatzen zuen ontziak... Urpean eszenatoki horrekin topo egin aurretik gidak azalpenak ematen ditu. Gero, begi aurrean duzunean



"Ingurumena
zaintzeko beharra
dugu, itsasoa ez da
zabortegia".

FRANCESC PUIG MUR

galderak zure burura etortzen hasten dira, eta gertatutakoa berreraikitzen saiatzen zara.

Nola deskribatuko zenuke ur azpian egotearen sentsazioa?

Ur azpiko bizitza, koralak eta animaliak nola garatzen diren ikusita berezia sentitzen naiz, perspektiba aldatu eta gainazaleko ohikerietatik isolatzea lortzen dut. Urpeko bizitza benetan bitxia da; dauden forma, kolore eta mugimendu motelengatik badirudi estralurtarren film batetik ateratakoa dela. Geroz eta gehiago ezagutzeko gogoia eta jakin-mina dut. Itsaspeko mundu hori aldatu egiten da munduko txoko desberdinetan; portaera ezberdina du, baina leku guztietan du bere xarma.

Neopreno barruan gozatu bitartean, ziur zerbaitek geldiarazi zaituela behin baino gehiagotan: ozeano eta itsasoetan dauden hondakin eta plastikoeak.

Hori da gehien kezkatzen nauena. Bada esaera bat dioena itsasoan amaitzen duela denak, eta hala da. Latak, plasti-

kozko kondarrak... hondakinez beterik daude itsaso eta ozeanoak. Ingurumena zaintzeko beharra dugu, itsasoa ez da zabortegia. Kontzientziazio alorrean asko dugu oraindik egiteko.

Naturarekiko errespetu handia duzue urpekariek. Baina modan dagoen jarduera bat den heinean, zein punturaino eragin diezaieke ekosistemei?

Toki berean urpekaritza jarduera masiboa dagoenean erregulatu egin behar da, itsasoko bizitzari eragingo diolako. Adibidez, duela gutxi Murtzian izan naiz, Cabo de Palos-en, eta natura-erreserbako irteerak mugatuak zituzten. Antolaketa handia dago eta era kontrolatuan egiten dira murgiltzeak. Ohikoena izaten da hori; naturan ahalik eta eragin gutxien izaten saiatzen gara.

Honezkero, irakurleren bati gogoia emango zion urpekaritzan hasteko. Baina poltsiko guztientzako jarduera da?

Ez gara engainatuko: dirua inbertitu behar da hasieran, ikasketan eta mate-

rialean, baina edozein kirol praktikatzen hasten zarenean bezalaxe. Pixkanaka, jarduera handitu eta materialen prezioak jaitsi diren heinean, geroz eta eskuragarriagoa da. Dena den, Elantxobeko Bou Nabarra Buceo urpekaritza eskolako lagunekin batera industriari buelta emateko lanean ari gara gu, gozatu nahi duenarentzat ekonomia ez dadin izan harresi bat.

Argi dagoena da beldur batzuk behintzat gainditu egin behar direla aurretik!

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da arnasketa edo entzumen arazorik ez izatea, horiek direlako ariketa hau egiteko erabiliko diren organo nagusiak. Aurreiritzirik gabe eta ideia orokorrik gabe etortzea ere komeni da; bada pentsatzen duenik beldurtuko dela eta gero ez da horrela izaten. Beste batzuek erronka pertsonal gisa hartzen dute. Gehien-gehienetan jendea oso pozik ateratzen da, damutzetik oso urrun. Nik esango nieke: eguneroko arazoak alde batera utzi, erlaxatu, arnasa hartu... eta gozatzeraz! ●


Bakanal burujabea

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Burujabetzaz eztabaidatzen pasa ditugu lau hamarkada baino gehiago eta, halako batean, gaia atasko eternal batean murgilduta zegoela zirudienean –ez ur eta ez ardo; ez kaka eta ez zirin–, eta mundu guztia beste kontu batzuen-gatik muturka hasia zenean –zeren, egia esan, Medellin erdia sudurretik sartu duen norbait ere lo arazteko modukoa bilakatua zen asuntua–, justu orduan, gogaituta, urgoituta, hitz batean esateko, seko aspertuta geundenean, orduantxe argitu da behin betiko norena den burujabetza. Edo norena izan den orain arte, joan den asteen eskuz aldatu baita. Burujabe zena bat-batean buru batzarrarekin bakarrik geratu da.

Inuzentea ni, uste nuen tamaina horretako aldaketa datorren kurtsoko ikasleentzat erregistratuta gera zedin alarma guztiak garrasika hasiko zirela historiako testu-liburuak tip-top-tap estresatuta idazten ari direnen bulego gaizki argizatuetan. Ezetz esaten didate, prentsako orrialde batzuk zikinduko dituela, ez askoz gehiago. Anekdotaren mailan gera daiteke notizia: Jon Buesa EAJko kideak II. mendeko eskultura erromatar bat, Arkaian agertutako Bako jainkoaren burua, estranjis-kiro bere etxean eduki duela 46 urtez. Eta ikerketa judizial batengatik itzuli behar izan diola Arabako Bibat arkeologia museoari, delituak preskribatuta daudenean.

Horrek gogora ekarri dit eduki nuela harreman pixka bat Bako jainkoarekin gazte garaian, *gaudeamus igitur* eta *juvenes dum sumus* kantari nenbilenean. Oso urte eroak ziren. Bizimodu disipatu samarra geneukan. Edozer gauza egiten amai genezakeen ikasle pisan



46 urteren ondoren
berriz "agertu"
da Arkaia Bako
jainkoaren burua.

bizi ginenok. Adibidez, Bilboko Arte Ederren museoko erakusketetara joaten –ez dakit zer ari zineten imajinatzen–. Total, han zer suma genbiltzan egun horietako batean, Pablo Picassoren grabatu batzuk tokatu sudur parean: lagunarteko mitologiarentzat mugarrria izan zen hura, deskubritu genuelako *Gernika*-ren egileak, kubismoaren aita-pontekoak, XX. mendeko artearen Alfak eta Omegak, tipo golfo samarra ere behar zuela izan, irudikatu zituen bakanalak kontuan hartuta.

Jakina den moduan, Bako jainkoari zor diote izena bakanal deituriko festek eta, Tito Livio kontatzen zuena egia baldin bada –demagun sinetsi nahi diogula, oso fidatzekoa ez dela dioten arren–, Erroma klasikoko moralitatea asalatu samar zegoen ospakizun horiekin, adin eta jatorri sozial guztietako

jendeak nahasten baitziren mozkor-mozkor eginda bost egunez luzatzen ziren orgia neurrigabeetan.

Jai horiek eragiten zuten desordena publikoarekin kezkatutik, debekatu egin zituzten k.a. 186. urtean eta orduz geroztik Erromaren kontra herri-gintza asko eta gerrigintza gutxi. Nik uste ziklo politiko berri bat hasteko garaia iritsi dela 2.208 urteren ondoren. Bakoren burua berreskuratu izana seinale bat da. Gerri mugimendu berriak koadro ikonikoren bat beharko balu, Picassorenak hor daude. Grinarik ere ez da faltako, giroan sumatzen den ebatzi-gabeko-tentsio-sexual kopurua kontuan izanda. Burujabe ez garen artean, izan gaitezen behintzat pixka bat buru Bako, zeren bestela burugabe izaten bukatuko dugu. Eta hori ez, Benito, hori ez. ●

Arizkungo Bestak 2022

ARIZKUN ROCK

EKAINAK 24 ORTZIRALA

www.arizkunrock.eus

SARRERA
DOHAINIK



AKA PALEKUA



BOKATAK

17:00

DRUNKEN
BARRELS

23:00

SKAKEITAN

THE LIO

TIRI&TERY
JAI ALAI GUATEQUE

berria

ARIZKUNGO
GAZTEAK

ahötsa

ARGIA

ARIZKUNGO
ESTANKOA

baztanet
INFORMATIKA & WEB

BAZTANG
xurie

BERRO
BIDE

BIXTA-EDER
jateakoa - restaurante

BURNE
ZURGINDEGIA

DOLAKETA



ELKAR
IRRATIAK

INDAUTO
TAILERRAK

IRIARTE
HARATEGIA

KORO ARRUTI
FARMAZIA



MARQUES
SOULE

ordoki
omologia
arabakoa

ttipi-ttapa





BABESTU INDEPEN DENTZIA

Babesa duenak galdera berriak
sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar.
Eragin dezake txikitik.

**Kazetaritza independentea
izan dadin, jendearen
babesa beharrezkoa da.**

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45